



Zinemaldira

Sakanan torturari buruz egindako 'Arg(h)itzen' dokumentala Donostiako film jaialdian emanen dute / 8

Maria Ana Sanz Huarte Irañetan
jaiotako maistra
omenduko dute
herrian / 2-3

Adonak urtea
despeditu aurretik
5.000 aferesi odol
emate lortzeko
erronka luzatu du / 5

Sakana Patinek 15
urtez azpiko Liga
Nazionaleko
hirugarren maila
irabazi du / 19

Urdiaingo Herri
Eskola hobetzeko
komunitate
hausnartze prozesua
martxan jarri dute / 6

Ane Berastegi, Junior
Mailako Pista
Mundialetan
egindako lanarekin
kontentu / 16-17

'Los últimos
artesanos' lau
zuzendarien inguruko
liburua aurkeztu du
Imanol Rayok / 22



Euskara
eroso ikasi
eta bizi

Sakana
Itsasi euskaltegia
EUSKARA-IKASTAROAK
Matrikula irailaren 25a arte
Zure herrian bertan ikasteko aukera
Gartzia Ximenez 46, behea, ALTSASU
sakana@aek.eus
948 468 258   
DIRULAGUNTZAK
Sakanako Mank (% 30)
Nafarroako Gobernua (% 50)
Hainbat Udak



Maria Ana Sanz Huarte maistra. UTZITAKOA

Erkuden Ruiz Barroso IRAÑETA

1868ko apirilaren 29an jaio zen Irañetan Maria Ana Sanz Huarte. Sanz maistra baino gehiago izan zen; hezkuntza tradizio handiko familia liberal batean bizi zen, eta bere gairara aurreratutako "motibazio, iniziatiba eta nortasun handiko" emakumea zen; haurtzarora eta emakumea defendatzeko bidea ireki zuen. "Gogor lan egin zuen emakumearen hezkuntza formalaren eta bere eskubideen alde". Irañetatik Iruñera joan zen, eta besteak beste, Madrilen eta Zaragozan ere bere ibilbide profesionala egin zuen. 1936ko maiatzean zendu zen, Espainiako Estatu Kolpearen aurretik.

Bihar, irailak 20, larunbata (11:00etatik aurrera) Irañetako alaba omenduko dute, eta Maria Ana Sanz Huarte zenaren inguruko historia eta ibilbidea eza-gutzeko aukera izanen da erakusketa batean. Gainera, eskultura bat mustuko dute ere, eskola zaharrak izan zirenaren aurrean egonen dena. Irañetako Udala ez ezik, antolakuntza lanetan "hamar-hamabi irintar" egon direla esan du Iñaki Aranoa

Irañetako maistra

1868an jaio zen Irañetan Maria Ana Sanz Huarte. Hezkuntzaren munduan eta emakumeen eta haurren eskubideen lanean oso figura garrantzitsua izan da, eta orain Irañetako Udalak omenduko du. Besteak beste, eskultura mustuko dute

Zia alkateak, besteak beste, Floren Beraza Gastesi eta Izaskun Bengoetxea Delgado irintarrak. Herritarren parte hartzea eta laguntza oso garrantzitsua izan dela esan du alkateak.

Hezkuntza

Maria Ana Sanz Huarte Irañetan jaiotako maistra bat zen. 1900. urtean Maistra titulua lortu zuen, eta urte bat beranduago Nafarroako Maistren Eskola Normalean Letrak irakaslea izan zen.

Aranoa: "Emakume oso aurrerakoa zela ikusi dugu; borrokalaria, eta pobreendako lan handia egin zuen. Lan eta lan ibili zen. Zerbait egin behar genuela pentsatu genuen". Maisu eta maistren tradiziozko familia batean hezi zen Sanz, amaren familiatik zetorrena. "Kale nagusian osabak eta amak eskola bat ireki zuten; horretan ibili ziren ere". Montessori bezalako metodologia aurrerakoiak erabiltzen zituen Sanzek.

Eskola ez ezik, haurtzaroren zorientasunean oinarritutako hezkuntza berrrikuntzak sustatu zituen Sanzek. Esterako, haurren oinarritzko beharrak asetzeko zerbitzuak sortu zituen eskolaren barruan. Berazak azaldu duenez, Adingabeen Auzitegian lanean egon zen ere: "Garai horretan gazteen artean lapurretak, liskarrak eta abar izaten ziren, orduan, pentsatu zuen hori zuzendu behar zela. Haurrak kalean egoten ziren,

gosea zen... Arazo handiena gosea zen, eta hortik eskola kantinak sortu zituen; jende pobreaki janaria emateko jantokiak". 1907. urtean sortu zituen behar zuten haurrek jan ahal izateko kantinak, besteak beste, San Frantzisko eskolan eta Konpañia kalean.

Pentsamolde horrekin, Juan Espinal maisuarekin batera, haurrendako kanpaldiak sortu zituen 1913. urtean, eta 1920ko hamarkadan Maistren Eskola Normaleko Elkartearen barruan eskola etxeak sustatu zituen, eta lehenengo roperoak sortu zituen ere. Maistren Eskolako zuzendaria izan zen, eta emakumeen eskubideen alde lan egin zuen. **Beraza:** "Garrantzia handia ematen diot bizi izan zen garaia-ri: Gerra Karlsten inguruan jaio zen, Lehenengo Mundu Gerra bizi izan zuen, Espainiako I Errepublikak, Primo de Riveraren berak horrelako historia eta proiektzioa izan zuen". Aranoak gaineratu duenez, "gaur egun emakumeek oztopoak badituzte, pentsa garai horietan..."

TALLERES GOÑI TAILERRAK

- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Errotulazioak
- Jaso eta etxera eramateko zerbitzua

Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com



Errekonozimendua

Iruñeko Udalak Maria Ana Sanzek egindako lanaren errekonozimenduan bere izena Txantrea auzoko eskola publiko bati jarri zion, eta Emakume Aitzindariei buruzko erakusketa baten parte zen Sanz. Orain Irañetako Udalak ere haren figura goraipatuko du bihar egingen duen erakusketa-rekin eta eskulturaren mustutzearekin.

"Haren inguruko lehenengo gauza iritsi zitzaiguna izan zen GUAIXE-n lanean nengoenean; aldizkari desberdinak iristen ziren eta horietako batean, Errotxapeako Auzolan aldizkarian, horrelako artikulu txiki bat zetorren Maria Anaren inguruan. Hortik aurrera, gaur egun arte". Omenaldia egiteko "momentutxoa" zela uste du Aranoak: "Sokatik tiratu dugu irintar askoren laguntzarekin".

Erakusketa sortzeko ezinbestekoa izan da Amelia Guibert Navaz Sanzen bilobak haren amonari buruz idatzitako *Maria Ana Sanz Huarte (1868-1936). En primer término, mujer* liburua. Guibertek amonaren ibilbidea jarraitu zuen, irakaslea da, eta Berazak azaldu zuenez, Rafa Blacoren bidez izan zuten haren bilobaren berri: "Amelia esperanto ikasten ari zen eta kontak-tua zuten". Liburuaren berri izan zutenean "hainbat ale" erosi zituzten maistraren ibilbidea eta historia ezagutzeko.

Irañeta

"Liburuan agertzen denaren arabera, imajinatzen dugu familiaren nahia zela Irañetan jaioa zela nabarmentzea", azaldu du Bengoetxeak. Izan ere, liburua Irañetako iturburuaren irudi batekin hasten da, eta lanean agertzen den Maria Ana Sanzen familiaren argazki zahar bat ere Irañetan kokatuta dago. Irañetan jaio, eta Iruñean bataiatu zutela jakin izan dute. "Lan gehiena Iruñean, Madrilan eta Zaragozan egin zuen".

Omenaldia egiteko prozesuan Sanzen familiak asko lagundu diela esan dute antolatzaileek. "Liburua ez ezik dokumentazio pila bat eman digute ere: tituluak, ikasketak, nondik ibili zen...". Hori guztia, haren ibilbidea, historia eta abar erakusketa ikusteko aukera izanen da: "Erakusketan zortzi bat lamina egonen dira eta bertan azalduko da guztia. Gainera, diapositibak izanen dira ere dokumentazio guztiarekin, eta dokumentuak ikusteko aukera izanen da ere". Lan handia izan dela esan du Bengoetxeak.

"Hainbat hilabete" daramatzate erakusketa prestatzen, alka-

"EMAKUME OSO AURRERAKOIA ZELA IKUSI DUGU; BORROKALARIA, LAN HANDIA EGIN ZUEN"

tearen hitzetan. "Urtearen hasieran hasi ginen pixka bat hitz egiten, eta azkenean estu eta larri azken momentuan azkeneko gauzak prestatzen. Ez da ate bat ireki eta hor dena aurkitu...". Erakusketa pintura tailerra egin duten tokian izanen da, eta eskulturaren mustutzea eskola zaharra zegoen tokiaren aurrean. Berazak eskulturaren oinarria egin du, harriarekin, eta eskultura ere harritzkoa izanen da eta Iñaki Villanueva eskultoreak egin du. Eguerd aldera mustuko dute, Sanzen familia presente dagoela. Bestetik, jaiotetxean ere "plakatxo" bat jarriko dute.

Maria Ana Sanz Huarteren familia "oso eskertuta eta ilusionatuta" dagoela esan du Bengoetxeak; "edozer gauza behar genuela bidaltzeko prest zeuden. Dokumentu guztiak, argazkiak eta abar eman dizkigute". Biharko omenaldian berrogei bat kide etorriko direla esan dute, besteak beste, Amelia Guibert biloba; senide gehienak Iruñean bizi dira, baina badira Santanderetik etorriko direnak ere. Senideek ere hitza hartuko dute. "Aurkezpena egingen dugu, eskulturaren aurrean familiakoei aureskua dantzatu zaie, eta gero familiak zerbait esanen du".

Herria bezala "ohorea" da Irañetan jaiotako "ilustre" bat izatea, "horregatik monumentua jarri behar diogu", gaineratu du alkateak.



Omenezko erakusketa

Bihar, irailaren 20, larunbata, 11:00etatik aurrera, Irañetako Udalaren Pintura tailerra egingen duten aretoan, Maria Sanz Huarteren omenezko erakusketa izanen da. Bertan, Irañetan jaiotako maistraren ibilbidea eta historia ezagutzeko aukera izanen da, zortzi panelen bidez. Gainera, haren historiaren berri ematen duten diapositibak izanen dira ere, eta garaiko dokumentazioa erakutsiko dute ere. Goiz osoan zehar irekita egonen da.

Eguerd aldera, Maria Ana Sanz Huarteren omenezko eskultura mustuko dute, erakusketa aretotik gertu, eskola zaharra zenaren eraikinaren aurrean; eskolara begira egonen da eskultura, hain zuzen. Mustutzean maistraren familiak parte hartuko du ere.



Alkatea eskulturaren tokian.



ASTEKOA

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

Telenavarra arin-arin edo mantso-mantso, geldi-geldi?

Azken garai honetan Espainiako Telebistan egin dituzten aldaketak kontuan harturik, berriz ere hasi naiz zenbait saio ikusten, albisteen eta eztabaiden saioak bereziki.

Denbora asko neraman Estatuko Telebista Orotarikoetara hurbildu gabe, edo denak alde berera lerratuak daudelako edo bulo baldarrak direla onartzen duten arren, horiekin aurrera joaten direlako lotsarik gabe.

Hala eta guztiz ere, azkenaldi honetan Espainiako Telebista katean gauzak aldatzen ari direla ematen du eta berriz ere hurbildu naiz bere informatiboetara. Gauzak asko aldatu dira katean: kazetari hobeak, albisteak eta iritzia ongi kudeatzen dituztenak, eta saio interesgarriak. Halere, oraindik gaintitu gabeko irakasgai bat gelditzen zaiela iruditzen zait. Izan ere, Telenavarrarena.

Horrenbeste saio dinamikoen artean, Telenavarraren saioa zurruna eta, euskarari dagokionez, errespetu gutxiak iruditzen zait. 40 urte edo pasa dira Telenortetik Telenavarrara pasa

40 URTE EDO PASA DIRA TELENORTETIK TELENAVARRARA PASA GINENETIK ETA ORAINDIK EZ DUGU INOIZ ERE IKUSI EUSKARAZ ARITZEN DEN LAGUNAREN AURPEGIA

ginenetik eta oraindik ez dugu inoiz ere ikusi euskaraz aritzen den lagunaren aurpegia. Lotsatzen da euskaraz egiteagatik? Eguraldia aurkezteko emakume bat agertzen da, “Arin arin” (gidoirik gabeko) saioan, inor ere ez. Saio osoak 25 minutu irauten badu, euskaraz 2,5 minututara ez da ailegatzeko. Lerroburuak aurkeztean gaitzen dutena baino gutxiago. Agian, saioari izenburua aldatu beharko liokete eta, euskarari dagokionez gehiegi mugitu ez direla ikusirik, “Arin-arin” ordeztu, “Mantso-mantso” edo “Geldi-geldi” izendatu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Altsasu berdin: Nolako kaleak nahi ditugu gure eguneroko bizitzan?

ALTSASUKO UDALEKO BEREINTASUN ARLOA

Gure iruditeria kolektiboan herrien antolaketak ez du generoarekin inolako loturarik, baina hirigintza ez da neutroa. Historikoki gure herri eta hirien diseinua ordainpeko lan produktiboaren dinamikaren beharren arabera antolatu izan da. Horrela, ez dira kontuan hartu pertsonen biziraupenerako ezinbestekoak diren zaintza-lanak, lan erreproduktiboaren behar espezifikoak.

Hirigintzan genero-ikuspegia kontuan hartzea da eguneroko bizitzak eta esperientziek eragindako beharrak kontuan hartu eta agerian jartzea. Baina nola eragiten digu horrek gure eguneroko bizitzan?

Segurtasunaren ikuspegitik, oso argi ikus dezakegu

hirigintzak segurtasun gabezia eta ahultasuntsentimendua areagotu ditzakeela; edota emakumeen ahalduntzean eta aske sentitzeko sentsazioan eragin positiboa izan dezakeela.

Segurtasun sentsazioa areagotzeko garrantzitsua da espazio batean orientatzea erraza izatea, norberak ikustea eta besteek ikusi ahal izatea, argiztapen egokia izatea; baina, dudarik gabe, toki bat segurua izan dadin eraginkorrena toki bizia izatea da. Segurtasunetik harago, arreata behar ezberdinak dituzten herritarren eguneroko mugikortasuna erraztuko duten aukera ezberdinak ahalbidetuz jarri behar da. Irisgarritasunean eta oinezkoen lehentasunetan oinarritzen diren herri eta hiriek menpekotasuna duten

pertsonen (haurrak, adinekoak, behar bereziak dituzten pertsonak) autonomia sustatzen dute. Horrek askatasun eta aukera gehiago ematen dizkie horien zaintzaz arduratzen diren pertsonei, eta hori guztia kalean, espazio publikoan, agerian geratzen da.


Horiek guztiak ari gara aztertzen Altsasuko Udala garatzen ari den Altsasu berdin partaidetza-prozesuan. Datozen asteetan abiatuko dugu prozesuaren azken fasea. Udal-teknikari, ordezkari politiko, Altsasuko Mugimendu Feministako kide eta herritarrekin egindako bileretatik jasotako informazio guztia aztertu ondoren, prozesuaren emaitza nagusia izanen den mapa, emakumeei segurtasun eza eragiten dieten herriko puntuekin osatutakoa, aurkeztuko dugu. Adi, beraz, datozen deialdiei!



OBJEKTIBOTIK

Zerbitzuz kanpo

Euriak eramandako lurrez betetako estolda. Etxe parean erratza pasa eta zaborra, estoldara; tabernako terrazan egon eta erretako zigarrokin, estoldara. Euria egiten duen egunean, bere funtzioa ez betetzeagatik ura etxeetara sartzeko arriskua, handiagoa. Orduan gogoratuko dugu garbi egon behar zuela.


www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Garboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearena Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Maite Iparragirre

Kolaboratzailea:
Asun Berastegi Gartzandia
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Etxarri Aranazko bidegorria erabilgarri dago

Arañaz eta Mundiño kaleetan oinezkoak, txirrindulariak eta autoak ibiliko dira

ETXARRI ARANATZ

Seinale batzuk jartzea besterik ez da falta. Zeren, dagoeneko, plaza eta eskola arteko txirrindulendako bidea edo bidegorria eginda dago. Tarte horretan Sakanako Donejakue bidearekin bat egiten du bidegorriak eta, beraz, erromesak ere ibiliko dira. Irailaren 2an beharrezko seinaleztapen lanak egin zituzten.

Hasteko, eskola pareko apartokalekuaren ondoan erromesendako atsedeneleku bat jarri dute. Handik herrira oinezkoendako eta bizikletendako hiru metro

zabaleko bide bat abiatzen da. Herrira joateko bihurgunetik aurrera, eskoletako bidean, bizikletendako bi norabideko bide bat egin da, 2,20 metro zabal dituen. Gainerako 2,80 metroak oinezkoendako dira. Izan ere, eskoletako bidean ez da autorik ibiliko. Eskoletako bideko zorua tarte batzuetan konpondu egin da, esaterako, Zurkillo erreka gaineko zubi gainean. Hondatuta zeuden barandak berritu ditu udalak. Tarte horretan gehienezko abiadura 15 km orduko da.



Mundiño kalean hasi edo bukatzen da bidegorria.

Aranaz eta Mundiño kaletik plazaraino iritsiko dira erromesak eta txirrindulariak. Bi kale horietan erabilera partekatatu behar dute oinezkoek, bizikletek eta autoek, baina bizikletek lehen-tasuna izanen dute. Kaleetan

seinaleztapen horizontala eta bertikala jarriko dira, erabilera duala adieraziz, eta abiadura orduko 20 km-ra mugatuko da. Ibilgailuen trafikoaren egungo norabidea mantenduko da. Ezarri den bidegorrian ez aparka-

tzeko ohitura hartu beharko dute orain auto gidari batzuk.

Bestalde, Sakanako Bizikleta Bide Sarearen baitan, Etxarri Aranazko eta Lizarragako dermioko bide bana lotu egin dituzte. Beraz, NA-120 errepidetik joan beharrik gabe partzelariako bidetik bi herrien arteko joan-etorriak egiteko aukera dago. Lizarragatik abiatzen direnak Astategietara joateko bidea hartu beharko dute, San Martin ermita baino beherago dagoena. Bideak Etxarri Aranazko Euntze dermioraino segitzen du eta han Epertegietako bidearekin bat egiten du. Handik Erdiko bidea hartu, Mugarasko txabola pasa eta Zierbidetik Etxarrira iritsiko da txirrindularia edo oinezkoa.

Azkenik, udalak jakinarazi duenez, Euskalerrriari frontoiko lanak ferien ondoren hasiko dira.

Adonak gizarteari '5000 Erronka' luzatu dio

Adonak erronka kolektibo bat proposatzen du: urtea despeditu aurretik 5.000 aferesi emate horiek lortzea. Nafarroan odola ematen duten pertsonen konpromisoa eta elkartasuna balioetsi nahi du horrela. Emaille berriek ere parte hartzeko aukera dute

SAKANA

Nafarroako Emailleen Elkarteak, Adonak, 5.000 aferesi emate lortzeko erronka egin du. Ekimen solidarioa da, eta Nafarroako herritar guztiei dei egiten die, odol emaille izan edo ez, urtea bukatu aurretik 5.000 aferesi dohaintza gaindi ditzaten.

Adonak aurtengo aferesi bidezko 4.500 emate lortzea zuen helburu, eta kopuru hori lorgarritzat eta errealistatzat jo zen. Hala ere, Nafarroako odol emailleen konpromiso maila handiak eta odol osagai horien premia gero eta handiagoak posible egiten dute helburu altuago bat bilatzea. 5.000 Erronka izeneko kanpaina eskuzabaltasunerako deia da, baina baita Nafarroako gizarteak beti erakutsi duen erantzun bikainaren aitortzea ere.

Adonak gogorarazi du aferesi emate bakoitzak balio duela eta 5000 Erronka lortzea ohiko emailleek eta keinu solidario hori egitera animatzen diren pertso-



Unitate mugikorra Etxarrin. ARTXIBOA

na berriek elkarrekin egindako ahaleginari esker bakarririk izango dela posible. "Tanta bakoitzak balio du. Emate bakoitzaren atzean bizitza bat dago, hobetu edo salbatu daitekeena. 5000 Erronka Nafarroak gehien behar

denean erantzuten duela erakusteko modurik onena da".

Zer da aferesia ematea?

Aferesia prozedura bat da, eta modu selektiboan ateratzen dira, emaillearen zainetik hainbat odol osagai, esaterako plaketak edo plasma, ezinbestekoak direnak paziente onkologikoendako, transplantatutako izan dutenendako edo immunoglobulinekin edo koagulazio faktoreekin tratamenduak behar dituztenendako. Ohiko dohaintza baino luzeagoa da (ordubete ingurukoa), baina baita espezializatuagoa ere. Aferesi bidezko ematean globulu gorriarik hartzen ez denez, azkarrago berreskuratzen da plasma edo erauzitako plaketak (hilabete bat aferesi emate baten eta hurrengoaren artean).

Halako emateak Odol Bankuaren Iruñeko eta Tuterako egoitzetan eta herrietara joaten den unitate mugikorrean egiten dira. Izena emateko: adona.es.



IRAILAK 22 - 26

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Prentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Astlehena 22

Antton Garcia Lopez Urdiaingo eskola hausnarketaz

Asteartea 23

Santiago Ruiz, AEKko ikaslea

Asteazkena 24

Bertso plaza

Osteguna 25

Anne Berastegi txirrindularia

Ostirala 26

Agenda berezia



Hautnarketa prozesuko aurreneko saioa. Asteartero dago hitzordua jarrita. UTZITAKOA

"Urdindar guztiak parte hartzera gonbidatuta daude"

ANTTON GARCIA LOPEZ GURASO ELKARTEKO PRESIDENTEA

Urdiainen Herri-Eskola hobetzeko komunitate hautnarketa prozesua martxan jarri da. 'Zaindu dezagun Urdiain. Haurren herria, denon eskola' lelopean egingen dute

Alfredo Alvaro Igoa URDIAIN

Azken urteetako ikasle datu kopuru bera du Urdiaingo Herri Eskolak. "Horrek positibotik badu", esan du guraso elkarte buruak. "Urtero klaustroa berritzen den arren, gure proiektuarekin bat egitearen poztasunarekin abiatu dute ikasturtea. Hori familiek gustura hartzen dugu", gaineratu du. Gobernuak 2 urteko ikasgelarik gabe utzi du eskola. "Ate bat itxi zitzaigun, baina gure eta udalaren elkarriketetan ondorioztatu genuen

baliatu behar genuela, eta Urdiaingo umeen erreferentziazko haur eskola publikoa Kattuka da". Gela desagertzearekin batera ikastetxearen premien inguruko kezka sortu zen guraso eta irakasleen artean.

Eskolak hobetu beharra du?

Bai. Guraso Elkarte zuzendaritza berria 2024an aukeratu zen. Eta egin genuen lehen gauza izan zen familiei galdetegi digitala bidaltzea. Erantzunak aztertuta, agerian gelditu zen eskolaren hezkuntza proiektuaren indar-

gunea: txikitasunak pedagogian ematen dituen abantailak. Baina bistan gelditu ziren egitura eta zerbitzu gabeziak: patioa, jangela, ikasgelen tamaina eta abar. Eskolak 2027an 75 urte beteko ditu. Eraikina bere horretan mantendu da. Ondorioztatu genuen hautnarketa bat behar zela. **Elkarrekin zer bait sortu nahi duzue?** Hori da. Eskola herriarena da, ez han ikasten dutenen "jabetzako". Herriarena denez, urdindar eta eragile guztiek dute zeresana, adina eta eskolarekiko harrema-

na edozein dela ere. Eskola ez da eraikin isolatu bat, herrian dago. Horrek guztiak beharrezkoa egiten du herri moduan horren inguruan hausnartzea eta proposamen adostu batzuk bulkatzea. Guztioi eragiten digun baliabide publikoa da eta, horregatik, urdindar guztiak parte hartzera gonbidatuta daude.

Hezkuntzak parte hartuko du?

Bai. Eskolako ikuskariari prozesua aurkeztu diogu, departamentuak prozesuan protagonismo zuzena izatea nahi dugu. Irakasleak gobernuko langileak dira. Eta eraikinean egiten den edozein moldaketa gobernuaren oniritzia eta berak bulkatuta egiten dira. Hautnarketa prozesuan bildutako informazio guztiarekin Orekari arkitektura estudioak aurreproiektu bat prestatuko du. Gure beharrak eta horiek errealitate bihurtzeko proposamenak jasoko dira. Aurreproiektua Hezkuntza Departamentuari emanen diogu.

Sakanako herri eskolek zer diote?

Interesa eta harridura piztu die. Guraso elkarte gehienak jangelak eta eskolaz kanpoko jarduerak kudeatzen sekulako lana dute. Guri, zorionez edo zoritxarrez, halakorik ez zaigu tokatzen, eta halako saltsetan sartzen gara. Aterako diren ondorioak eta prozesuaren martxa guraso elkarteekin partekatuko ditugu

Nola abiatu zenuten guztia?

Galdetegiaren ondorioak aztertuta, argi ikusi genuen egiturazko neurriak hartu behar zirela. Horretarako taxuzko prozesu bat behar da. Orekariko Xabier eta Itsaso Urdiainen bizi dira eta haiekin harremanetan jarri ginen. Nafarroako Gobernuko herriarren partaidetzarako

dirulaguntzen berri eman zigten eta deialdira proiektua aurkezteko proposatu zigten. Horrela komunitateak emandako informazioa jaso, ondoren aurreproiektua sortzeko. Ideia bikaina iruditu zitzaigun eta ilbeltzean eta otsailean horretan aritu ginen. Gobernuak 10.000 euroko laguntza eman digu. Urdiaingo Udalak prozesuan parte hartu eta diru ekarpena egingen du. Orekarikoak gidatuko dute prozesua.

Prozesuak zein epe du?

Komunitate hautnarketa hainbat ardatzen inguruan bideratu nahi genuen, esaterako, arkitektura eta hirigintza. Zeharka egiturazko balio batzuk ere landu nahi genituen: pedagogia berriak, feminismoa, natura, ekologia, espazio publikoaren defentsa... Horietan erreferentziazkoak diren pertsonak aukeratu genituen hasierako inspirazio saiorako. Hilaren 16an, asteartean, hemen izan genituen Ainitze Errasti arkitektura pedagogikoari buruz hitz egin zuena, Alfredo Hoyuelos pedagogia berritzaileez eta Mikel Baztan, besteak beste, Noaingo zentzumenen parkearen sortzailea. Herria, eskola eta naturaren inguruan aritu ziren, errealitate berriak azalduz. Lastailaren 21era bitartean hiru tailer izanen dira: eskolaren diagnosia eta beharrak irailaren 21ean, 18:00etatik 19:30era; proposamenak lastailaren 7an eta eskola berrituaren ko-diseinua lastailaren 21ean. Txikiendako tailerrak izanen dira. Haiek ere protagonistak dira. Horregatik leloa: *haurren herria, denon eskola*. 3 eta 5 urte artekoak irailaren 30ean, 16:30ean eta lastailaren 14an, 6 eta 11 urte artekoak.

Aurreproiektuarekin, zer?

Departamentuari prozesuaren berri eman eta herriak erabaki duen zerbitzu eta baliabideen eraberritze proposamena aurkeztu. Haien erantzuna zuzenean jaso nahi dugu. Bi urteko gela kentzea guretako zartako bat izan da. Horren ondoren proposamen eraikitzaile bat egiteko gai izan gara. Guretako garrantzitsua da erakustea kolpea jaso arren aurrera goazela. Herri eskola publiko egonkor eta pedagogikoki itzela izan nahi dugu. Horretarako, behar diren baliabideak dagozkion eragileei eskatuko dizkiegu. Lan serio baten ondoren egindako aurreproiektua gobernuaren diru partidetan jasota gelditzeko esperantza dugu.



"GURE BEHARRAK ETA HORIEK ERREALITATE BIHURTZEKO PROPOSAMENAK JASOKO DIRA"

Dataz aldatuta, bueltan da Munduko Arrozak

Kulturartekotasuna dastatzeko aukera izanen da Etxarri Aranatzek larunbatean. Hainbat jatorritako etxarriarrak plazan prestatutako janaria nola egin galdetu eta hura dastatzeko aukera izanen da. Palestinako familia bat omenduko dute ere

A.A.I. ETXARRI ARANATZ

Munduko Arrozak ekimenaren laugarren edizioa hartuko du Etxarri Aranatzek larunbatean. Orain arte kulturartekotasuna sustatzen zuen ekimena festetan egin izan da, festetako ostegunean, zehazki. Nerea Anso Iriarte zinegotziak azaldu duenez, "ekimena festen egutegitik atera nahi genuen. Festetatik kanpo Munduko Arrozak bere eguna eduki behar duela iruditzen zaigu. Bestetik, aurreko festetatik egun bat kendu genuen, eta ostegunean zenez, atzeratzea erabaki zen". Data berria aukeratzeko garaian, Ansok azaldu duenez, "asteburuero zerbait dago. Data aproposak bilatzen hasi eta, azkenean, irailaren 20an egitea erabaki genuen". Zinegotzi etxarriarrak gaineratu duenez, "egun polita izanen da. Goizean Munduko Arrozak eta arratsaldean abesbatzaren eta dantza taldearen ikuskizuna izanen da".

Ansok gogorarazi du Munduko Arrozak ekimenaren helburua: "arroza mundu guztian hainbat modutan prestatuta jan daitekeen elikagaia da. Etxarri Aranatzek beste herrialde batzuetan jaio-tako hainbat etxarriar ditugu. Haien bidez arroza nola prestatzen den erakutsi nahi dugu. Etxarri-Palestina elkartasun taldeko Marisa Maiza Begiristainek esan duenez, "herritar guztiok ikusi behar dugu aniztasuna aberastasan bat dela. Hori aprobetxatu eta gozatu behar dugu".

Etxarri Aranatzko plazan hainbat gastronomia txoko izanen dira larunbatean 10:00etatik aurrera. Maizak azaldu duenez, Venezuela, Maroko, Kolonbia, Portugal, Mali, Ekuador eta beste herrialde batzuetako platerak nola prestatzen diren ikusteko aukera izanen dute plazatik pasatzen direnek. Haiekin batera Sakana Harrera Haranak kideak ere beraien eltzekoa prestatuko



Antolatzaileek larunbat goiz-eguerdian plazatik pasatzeko gonbidapena egin dute.

"HERRITAR GUZTIOK IKUSI BEHAR DUGU ANIZTASUNA ABERASTASUN BAT DELA"

dute. Maizak esan duenez, "bakarren batek errezeta ikasi nahi badu, sukaldariekin hitz egin eta galde diezaiela. Horretara animatzen ditugu etxarriarrak". Ziurtatu duenez, "egun horrek ere helburu hori ere badu, jendeen arteko komunikazioa bulkatzea, elkar ezagutzea eta harremana sortzea".

Sukaldariek goiza emanen dute plazan. Jatekoak 13:30ean prest izanen dira eta plazara hurbiltzen direnek dastatzeko aukera izanen dutela azaldu du Ansok. Euro baten truke platertxoak, sardexka eta eskuzapia eskuratu daitezke. Hori eginda, nahi beste arroz mota dasta daiteke.

Palestina

Larunbateko Munduko Arrozak ekitaldian Palestina presente izanen dela iragarri dute antolatzaileek. "Altsasun Palestinako

familia bat bizi da. Munduko Arrozak ekimenera etortzera gonbidatu ditugu. Omenaldi xume bat egin nahi diegu", jakinarazi du Ansok. Omenaldia hartuko duen ekitaldi hori 13:00etan izanen da. Maizak azaldu duenez, "Etxarriko elkartasun taldean beti izan dugu helburu bat: Palestina ahalik eta leku gehienetara eramatea. Gaur egun dagoen gatazkarekin, hartaz hitz egitea, kontzientziak mugitu eta mahai gainean Palestinaren egoera jartzea, hitz egiteko eta salatze-ko. Horregatik pentsatu genuen ezin genuela Munduko Arrozetan hutsik egin". Elkartasun taldekoek Palestinari buruzko informazioa eta salmentarako materiala jarriko dute herritarren eskura.

Munduko Arrozak Sakana Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak, Sakana Harrera Haranak eta Etxarri-Palestina elkartasun taldeak antolatu dute Etxarri Aranatzko Udalaren laguntzaz. Guztien izenean Ansok plazatik pasatzera eta "palestinarrak bizitzen ari diren egoerarekin kontzientzia hartzera" deitu du, "borrokatzeari ez uztea".

Balioen betaurrekoekin idatzi beharreko narrazioak

Zurumurruek kontrako ipuin lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Anitzartean kulturartekotasun zerbitzuak Zurumurruek Kontrako Ipuin Laburren Lehiaketa antolatu du seigarren aldiz. Literatur lehiaketaren bidez elkarbizitzari modu ezkorrean eragiten dieten jatorri anitzeko pertsonen inguruko zurumuru eta estereotipo ezkorrei aurre egin nahi die Anitzartean. Horiei kontrajarri nahi die kulturartekotasuna eta kohesio soziala, bazterkeriaren kontrako jarduna, baita arrazakeria eta xenofobiaren kontra jardungo duten pertsona eta entitate konprometitua sortzea eta sendotzea ere. Horiez aparte, narrazio laburrak idazten dituztenak Anitzartean zerbitzuak sustatzen dituen balioak kontuan hartu beharko dituzte: aniztasuna, berdintasuna, errespetua, diskriminazio eza, elkarbizitza, kulturartekotasuna, arrazakeriaren, aurreiritzi eta zurumurruek kontrako borroka, aniztasunaren ekarpen eta abantailak. Zerbitzuaren *Zurumurruek jasari*, *baloreak aterki* leloa bere egin beharko dute, beraz, idazleek. Eta kontakizunetan aniztasunak, tratatu eta aukera berdintasunak, eta bestearekin bizitzeak dakartzigun onurak kontatu beharko dituzte.

Parte hartzeaz

Sakandarrei zuzendutako literatura lehiaketa horretan lanak euskaraz eta gaztelaniaz aurkez-

daitezke. Hizkuntza bakoitzean bina maila daude, 16 urte artekoena eta 16 urtetik gorakoena. Maila bakoitzean hiruna sari banatuko dira. Narrazio laburrek, gehienez ere, lau orrialdeetako luzera izan behar dute. Arial tipografiaren 12ko tamainarekin idatzi beharko dira, espazio bikoitzean. Lehiaketara aurkeztu diren lanek originalak, berriak eta beste lehiaketetan saritu gabek izan beharko dute.

Parte hartzaileek PDF formatuan anitzartean@gmail.com edo bitartekaria@sakana-mank.eus posta elektronikoko helbideetara bidali beharko dute idazlana. PDF-en izena Zurumurruek Kontrako Ipuin Laburren V. Lehiaketa eta izengoiti bat izanen da. Horrekin batera, beste PDF formatuko agiri batean parte hartzailearen datuak jarri beharko dira: izen-abizenak, jatorria, helbidea, posta kodea, telefona, identifikazio zenbakia, eta posta helbidea. PDF horren izenean Zurumurruek Kontrako Ipuin Laburren V. Lehiaketa, izengoitia, ipuinaren izenburua, hizkuntza eta adin tarteak aipatu beharko dira. Lanak bidaltzeko epea lastailaren 15ean despedituko da.

Sari banaketa ekitaldia azaroaren 20an egingen da. Sarituek Sakanako Dendarien Elkarteko saltokiren batean aldatzeko txartelak eskuratu dituzte. Lehiaketari buruzko argibide guztiak sakana-mank.eus webgunean daude.

FLORES

Utubiar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

BIKAIN GARAJEA

**Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila**

948 460 037 Arbizu

"Edozein txokotako torturatuk bere egingen du"

MANU GOMEZ GENUA MIKELATXO URBI KOLEKTIBOKO KIDEA

Sakanan egindako torturari buruzko 'Arg(h)itzen' dokumentala Donostiako Zinemaldian emanen dute



Unai Razkin, egileetako bat, eta Patxi Arratibel, dokumentaleko parte hartzaileetako bat, Lizarragako tunelean. AITOR KARASATORRE

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Mikelatxo Urbi kolektibo sakandarrak egin du *Arg(h)itzen: torturaz argi hitz egiten, tortura argitzen* dokumentala. Ikusentzunezkoak 1966. eta 2011. urteen artean Sakanan tortura pairatu zuten 30 lagunen lekukotzak jasotzen ditu. Horretaz aparte, tortura zer den eta estatuaren inpunitate egiturak argitara ateratzeko asmoz zortzi adituk ere hitza hartzen dute dokumentalean.

Ibarrean sortutako ikusentzunezkoa Donostiako Zinemaldira iritsi da. Zinema jaialdiaren barruan Euskal Herrian egindako produkzioak biltzen dituen Zinemira atalerako aukeratu dute. Hiru emanaldi izanen dira Donostian asteburuan: larunbata 20an, 22:30, Principe aretoan eta igandea 21ean, 16:00etan Antigu Berrin eta 18:15ean Trueban. **Halakorik espero zenuten?**

Izena eman genuenean onartuak izateko esperantzarekin egin genuen. Baina, espero-espero... Guretako sorpresa handia izan da.

Lantaldean zer sentitu zenuten Zinemaldirako hautatuak izan zinetela jakiterakoan?

Alde batetik, poz izugarria. Gure lana baliozkotzat jotzen duelako, kalitatezko lana dela aitortzen du. Bestetik, ardura. Geroztik izan direlako hamaika lan, hamaika kezka eta hamaika zeregin. Hau oso handia da eta ez dakit biharko eguna nola joanen den. **Protagonista sakandarrek zerbait esan dizute?**

Gehientsuenak ikustera joatekoak dira. Hori guretako pozgarria da. Tantaka komentarioak ailegatzten ari zaizkigu: "zeinen ongi!" "Zer poza, mezua zabaltzen dela"... Halakoak, bai.

Euskal zinemari eskainitako Zinemira atalean lehiatuko da dokumentala. Horren zer balorazio egin duzue?

Lehiatzearena bigarren parte da. Zinemaldian dokumentala egote hutsa sari handia da. Baina lehiaketa hor dago eta, zergatik ez? Errealitatea baino, amets bat balitz bezala aritu gara hortaz. Badakigu gauza batzuk egiteko daudela eta horiek egin ditugu ahalik eta urrutien iristeko.

'Arg(h)itzen' gora eta behera. Baina zer da?

Fran Baldaren ideia bat izan zen. Sakanan urtetan eta urtetan

tortura pairatu zuen jende asko zegoela, eta haien testigantzak jaso behar zirela dokumental moduko bat egiteko. Ideia horretatik abiatu ginen. 30 testigantza jaso ziren. Ondoren adituengana jo genuen eta gaia handitzen joan zen. Dokumental bat da, Sakanatik Euskal Herrira eskainitako dokumentala da. Ez da dokumental lokala. Euskal Herriko historia, torturaren historia, torturaren psikologia, tortura nola gainditu daitekeen... Horiek



"LANA BALIOZKOTZAT JOTZEN DU, KALITATEZKO LANA DELA AITORTZEN DU AUKERATU IZANAK"

azaltzen dituen dokumentala da. Beraz, Euskal Herriko edozein txokotan aurkezteko modukoa da. Edozein txokotako torturatuk bere egingen du dokumentala. Jendeak ez du gauza lokal bat bezala ikusiko.

Joan zen urtean mustu zenutenetik zer bide egin du dokumentalak?

Neurri batean, joan den urteko Altsasuko mustutzea pase pribatua izan zen. Parte hartu zuten guztiak izan ziren, baita gonbidatuak ere. Ondoren herrietan eman zen. Baina erabateko mustutzea Bartzelonan egin genuen martxoaren 27an. Zergatik? Dokumentalak orain duen itxurarekin han eman genuelako estreinakoz. Altsasuko emanalditik Bartzelonako emanaldira aldaketak egon dira: iraupena zazpi minutu motzagoa da, 75 minutu irauten ditu; irudi batzuekin zenbait gorabehera genituen eta marrazkilari batek irudi horiek marrazki bihurtu zituen, eta, momentu honetan, araudia betetzen du.

Donostiakoak beste zinemaldi batzuetako ateak zabal ditzake?

Ate joka hasi gara. Ikusiko dugu jotze horrek zer ekarriko duen. Bestalde, Donostikoaren ondoren, hiru egunetara Madrilen emanen dute. Uste dugu baietz, Zinemaldiko zigiluak aukera emanen digula alde batetik bestera gehi-
xeago mugitzeko dokumentala. **Telebistetan emititzeko bidea emanen du?**

Hor ere zerbaitetan ari gara. **Alfonbra gorria zapaltzeko prest?** Prest beti. Hori ere amets bat da. Euskal ekoizleen sariketan aurrera eginez gero, aurki jakinen dugula esan digute. Eta joan beharko genukeela. Hori nire buruan, behintzat, momentu honetan ez dago.

Kolektiboko zein joanen da Donostiako emanaldira?

Berez bost gara. Aurkezpenera hiru joanen gara: Unai Razkin, Luis Kintana eta ni neu. Gauza bategatik edo besteagatik Juan Kruz Aldasoro eta Aitor Karasatorre ezin dira joan. Donostian ikusi eta ikasitakoak gozatzeko izanen dira. Eta testigantza eman duten eta joanen diren sakandarrak zaintzeko. Batzuk nahiko urduri ikusi ditugu egun hauetan. **Sakanan atzera emanen duzue?**

Bai. Berriro ere herrietatik ate joka hasi zaizkigu. Pentsatzen dugu Sakanan deitzen duten toki-tara emanaldia eskaintzera joanen garela.



Sistema robotiko finalista. UTZITAKOA

Aldakin nazioarteko lehiaketan finalista

Berrikuntza gaitasuna aitortzeaz gain, teknologia robotikoa kokatzeko aukera estrategikoa da

ALTSASU

Aldakin taldea finalista izendatu dute IERA Award 2025 (Innovation and Entrepreneurship in Robotics & Automation) sarietan. Robotikaren eta automatizazioaren arloan munduko sari ospetsuenetako bat da. Ekitaldia azaroaren 6an izango da, Seulen, International Symposium on Robotics (ISR) azokan eta Robot-World azokan. Kanada-AEB proiektu batekin eta Txinako beste bi dira finalistak.

FIBREMACH proiektuarekin da finalista Aldakin, konposite piezak mekanizatzeko sistema robotizatu aitzindaria da, industria prozesu horietan minbizia sor dezaketen hautsen %98 eza-batzen duena. Segurtasuna hobetzeaz aparte, produkzioaren zehaztasuna, eraginkortasuna eta iraunkortasuna handitzen ditu. Diseinu eskalagarria du eta fresatzeko makina tradizionalek baino eskuragarriagoak aukera ematen du aeronautika, automobilgintza edo energia eolikorako funtsezko sektoreetan erabiltzeko. Proiektuak estatuan eta Europan saritu izan dute. IERako izendapenarekin, Aldakin robotikaren erakusleho globalean kokatzen da orain, nazioarteko erreferenteekin batera.



APP-A

Hemen da!

Zergatik eta zertarako deskargatu aplikazioa?



Kide baldin bazara, aplikazioan izanen duzu **GUAIXE KIDE TXARTEL digitala**.



Zozketa eta lehiaketa guztietan modu erraz batean parte hartzeko aukera izanen duzu.



Norberak nahi dituen herri eta **intereseko gaiei buruzko kazetaritza edukiak eta azken orduko abisuak** lehenesteko aukera, nahieran.



GUAIXEren aldizkariak PDFan, argazki galeria, audio eta bideoekin mugikorrean irakurtzeko aukera.



Gustuko edukiak gordetzeko aukera, beranduago irakurtzeko; **edukiei iruzkinak egin eta artikulua norbaiti bidaltzeko** aukera.



GUAIXE.EUS webguneko **ikus-entzunekoak eta argazkiak** doan deskargatzeko aukera.



Sakana osoko kultur eta jardura agenda, momentu oro eguneratua.



0 Km Gida, Sakana osoko zerbitzu eta komertzioen gidarik berrituen eta osatuenarekin.



Bezera arreta atala, intzidentzien berri emateko: aldizkaria ez duzula jaso, irratia ez dela entzuten, edota beste edozein eskaera edo abisu bidaltzeko.



Gure **komunitateko kidea** izanda, gure komunikazio proiektua garatu eta hobetzeko prozesuan lagunduko duzu.

 **guaixe**

guaixe.eus/aplikazioa/



**DESKARGATU
APLIKAZIOA**



KOLABORAZIOA

ASUN BERASTEGI GARTZANDIA

Basafruituak

Botanikaren ikuspegitik fruitua haziak biltzen dituen landareen egitura da (zehazki, landare hazidunena). **Basafruituak** landa eremuan dauden fruituei esaten zaie eta Sakanan basafritu ezagunen arteko top 10 zerrendan hobekien sailkatuak dira: gaztaina, maldarana edo patxarana, masusta, marrubia, sagarmina, mazpila, hurra, ahabia, eta arkakaratsa. Fruitu hauek ematen dituzten landareen artean daude zuhaitz, zuhaixka edo sastraka eta landare belarkarak. Eta, euskaraz, askotan, ez beti, landareari fruituaren izen berarekin deitzeko ohitura dago. Esaterako, gaztaina deitzen diogu gaztainondoari eta hurra hurrondoari edo hurritzari.

Aurreko mendeko erdi aldera arte **gaztainak** garrantzia handia zuen pertsonen eta abereen elikaduran. Ordutik, batez ere tinta eta txankroa gaitzen eraginez, baina segur aski gizartean izan ziren aldaketengatik ere,

gaztainondoek beherakada izugarria izan zuten. Asko hil egin ziren, eta beste zuhaitz batzuk dira nagusi gaur egun lehen gaztainondoak zeuden leku askotan, toponimoek argi asko adierazten dute. Hala ere, gaur egun oraindik ere zenbait tokitan badira gaztainondo zahar eta ikusgarriak, esaterako, Irañetan eta Bakaikun.

Uda bukaeran laharra edo sasia landarearen fruitua ugari ikusten da hesietan eta baso eta bide bazterretan. Fruitu horri **masusta** edo masosta deitzen zaio. Oso fruitu zapoetsua da, oso osasungarria, eta zuzenean jasota edo marmelada eginez erabiltzen da gehien. Masusta fruitua zati edo bikor txikiz osatuta dago (botanikan, zati hauei drupa erako egiturak direla esaten zaie), bakoitzak hazi txiki bana darama. Botanikaren ikuspegitik lahar espezieak sailkatzea oso zaila bada ere, fruituaren egiturari begira Sakanan bi masusta mota nagusi daude: batzuk bikor txiki eta ugari dituzte,



ASUN BERASTEGI GARTZANDIA

zapoetsuenak, eta beste batzuk bikor gutxiago eta handiagoak dituztenak, hauek ez daude hain onak.

Ahabia (*Vaccinium myrtillus*) gaur egun modan dagoen fruitua da. Izen bera dute fruituak eta landareak. Ahabia ekologoendako oso indikatzaile ona da, beti pH baxua (lur azidoak) duen lurretan hazten delako. Lurzoruaren analisirik egin gabe ere, ekologo edo botaniko batek jakin dezake lurzoru bat azidoa dela landare hau ikusten badu. Sakanan ahabia zenbait tokitan modu naturalean sortzen da baina oso jende gutxi ezagutzen du. Egia da ez dela oso ugaria eta ez dagoela aukera asko multzo handiak biltzeko baina bakan batzuk hartuta ere plazera da dastatzea. Ziordian ahabiari “abitxo” esaten ziotela azaldu zidan orain dela urte batzuk euskaraz ez zekien pertsona batek eta ongi asko azaldu zidan non aurkitu zitekeen, Hirumuga parajearen inguruan. Zer esanik ez, ahabia dagoen tokia ez da leku txarra izaten onddoak biltzeko.

Ziordiko euskararekin segituz, “abitxigorri” esaten diote basoko **marrubiari** eta euskaraz baditu beste hainbat

izen, mailuki eta arrega dira ezagunenak. Sakanan basoko marrubia nahiko ugaria da. Atentzioa jarritz gero erraz ikusten da baso ertzetan, batez ere hariztien inguruan. Kultibatzen den marrubi bat egiteko segur aski basoko bost marrubi edo gehiago behar dira, basokoa askoz txikiagoa delako, baina basoko marrubi txiki baten zaporea bost aldiz intentsuagoa da dendan erositako batekin alderatuta. Zuzenean bildu eta jateko primerako aukera da. Bestela, eskutera pare bat bildu eta postreetan gehitzeko erabiltzea oso aukera ona da ere. Marrubiaren landarea sendabelar modura erabili izan da, ez bakarrik fruituak baizik eta sustraiak eta hostoak ere.

Maldarana, edo elorri beltza, eta patxarana banandu ezinezko hitzak dira. Maldaranarekin egiten da patxarana eta askotan zuzenean patxarana deitzen zaio bai fruituari bai landareari ere. Patxarana egiteko, jakina, anisa eta anisaren laurden-heren bat maldarana behar dira. Batzuk kafe bikor batzuk eta kanela pixka bat gehituko dituzte eta urte bat pasatu baino lehen,

patxarana prest egonen da. Maldarana txikiak eta handiak daude eta batzuk txikiak edo handiak hobesten dituzte beraien etxeko patxarana egiteko. Botanikaren ikuspegitik, bi maldaran espezi ezberdin daude, bata fruitu txikiak ematen dituen eta beste bat handiak ematen dituen. Maldaranaren berezitasuna da oso goiz loratzen dela. Udaberriaren hasieran, zuhaitz eta zuhaixka gehienak neguko koloretan daudenean, maldarana loratu egiten da, hesi eta bide ertzak txuriz edertuz (ikus argazkia).

Basafruitu bakoitzak, landare bakoitzak bezalaxe, eta ezaguna izan edo ez, badu bere berezitasuna, bere funtzioa naturan, nola ez? Baita bere erlazioa pertsonetikiko. Pertsonetikiko izan dezakeen erlazio horretan daude erabilpen eta tradizio zaharren ezagutza (gaztaina, maldarana), historia eta kultura azkenean, fruituak basoan dastatzearen plazera (marrubia, ahabia), eta baita paisaiaren edertasunak disfrutatzeak aukera (udaberriko maldaranen loratze garaia besteak beste, argazkian ageri den bezala).

DUELA 25 URTE...



Trikimailuren agurra

Sakandarrez osatutako Trikimailu plaza taldeak Hiriberri Arakilgo festetan esan zien agur eszenatokiei. Arrazoi pertsonalak tarteko, taldekideek taldea desegitea erabaki zuten. Bost urteko ibilbidea egin zuen Trikimailuk eta horietan guztietan Hiriberri Arakilgo festetan emanaldiak izan zituzten. Hiriberriarrek estimatzen zuten taldea zen Trikimailu. Azken emanaldian, agur esateko, xanpainarekin egin zuten topa.

FESTAK



EGIARRETA Etxez etxeko errondan txarangarekin ariko dira. ARTXIBOA

EGIARRETA
FESTAK

IRAILAK 19 ostirala

15:00 Herri bazkaria.
17:00 Festen hasierako etxajua eta haurrendako mozorro erakustaldia.
17:15 Japoniar bonbak.
17:30 Mus eta briska lehiaketa. Puzgarriak, buruhandiak eta txikien azoka.
18:00 Txokolate jana.
20:00 Modestorekin dantzaldia.
21:30 Zezensuzkoa.
22:00 Afaria.
23:00 Bingoa.
00:00 Modestorekin dantzaldia.

IRAILAK 20 larunbata

11:30 Jokoak eta txikien azoka, puzgarriak eta buruhandiak.
13:00-15:00 Otamena eta paella lehiaketa.
16:30 Puzgarriak eta buruhandiak, mozorroak eta txikien azoka.
17:30 Erronda Ilunberriko txarangarekin.
21:30 Zezensuzkoa.
22:00 Afaria.
23:00 Bingoa.

00:00 Bako DJ-a.
03:00 Festa jokoak.

IRAILAK 21 igandea

11:00 Meza.
12:00 Aperitiboa, eta adinekoei eta jaioberriei oparia.
13:00 Paka eta txapela jaurtiketa lehiaketa.
17:00 Mus eta Briska lehiaketaren finala.
18:00 Los Tajudos del Norte Mariatxiak.
19:30 Tortillak eta txistorra dastaketa.

LIZARRAGA

IRAILAK 20, larunbata
ERGOIENAKO EGUNA

10:00 Ergoienako bira. Izen ematea ordu erdi lehenago.
11:00 Haurren lasterketa.
12:30 Musika.
14:30 Bazkaria, frontoian.
17:00-19:00 Haurrendako jolasak, eskoletan.
18:00 Aizkora apustua, frontoian.
18:30 Txaranga.



KANTARI

ESTREINEKOZ NAFARROAN



IKUSKIZUNA

Azaroak 21, arratsaldean
Iortia Kultur Gunea

Altsasun

Parte hartzen duten ikastetxeak:
CORAZONISTAS, IÑIGO ARITZA eta ZELANDI

IZENA EMAN ZURE IKASTETXEAN!
EPEA: Irailak 28





ALTSASU Mila Kolore elkartekoek piztu zuten festen hasierako etxajua.



IRURTZUN Bertako ganadu azokak jendea erakarri zuen. UTZITAKOA



ALTSASU Erraldoi konpartsarekin batera buruhandi berriak ere atera ziren.



ALTSASU Bukatzeko, su festa.



IRURTZUN Gazta dastaketa eta lehiaketa izan ziren. ARTZAIN GAZTA



ALTSASU Ospakizuneko ezinbesteko elementua: zortzikoa.



ALTSASU Kalean gora zezena!



ALTSASU Festetako atorrak airera.



ALTSASU Ajolabaikoek 40. urteurrena ospatu zuten. UTZITAKOA



ALTSASU Peñen jaitsierarekin, atzera ere, plaza betetzen zen.



ALAIN SENAR AKADEMIA • ALTSASU • ARBIZU • 606 053 076

"Ikasle bakoitzari egokitutako laguntza eskaintzen dut"

Alain Senar naiz eta ingeniari industrialari naiz. Ikasketak bukatu nituenetik irakaskuntzara dedikatu naiz. Biakademia ditut, bata Arbizon eta beste Altsasun.

Talde txikitan lan egiten dut, Lehen Hezkuntza, Lanbide Heziketa, DBH eta Batxilergoko ikasleekin.

Azterketen prestakuntza, etxeko lanen antolaketa, lanen aurkezpenetan, ikasleen antolakuntza laguntza eskaintzen dut.

Ikasgai guztiak euskaraz zein gaztelaniaz ematen ditut. Azalpenak pertsonalak dira, ikasle bakoitzak behar duenera egokituta, ikasle bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzua eskaintzen dut.

Ikastetxe eta institutu ezberdineko tutore, orientatzaileekin harremanetan egoten naiz uneoro ikasleekiko laguntza egokia izan dadin.

"Instalakuntza ezin hobeekin disfrutatu Arbizon"

Gurean, kirola egiteko instalakuntza asko daukagu, besteak beste, frontoiak, gimnasioak, muskulazio aretoak eta igerilekuak ditugu. Honetaz gain Udalak jarduerak gidatuak eskaintzen ditu helduentzat (Pilates, Yoga, Zumba, Cross training, Euskal dantzak eta Igeriketa) baina baita haurrentzat ere, hala nola Gimnasia erritmikoa, Euskal dantzak eta Igeriketa maila ezberdinak. Honetaz gain erlaxaziora-

ko parada izan dezakezu hidromasaia eta sauna ere aukeran dituzulako.

Aurten berrikuntza moduan ezagutzera eman nahi dugu kiroldegiko klimatizagailua aldatu dugula. Makina hau aldatuta igerilekuen guneko egungo baldintza termikoak hobetu ditu Arbizuko udalak tenperatura eta hezetasun balioak, sistemaren energia eraginkortasuna hobetu da eta, bide batez, 86/2018 Foru Dekretua betetzen da.



ARBIZUKO KIROLDEGIA • 948 461 002



MAYKA PILATES • ALTSASU • 650 231 378

"Zure gorputzak oreka senti dezan pilates lehen urratsa da"

Mayka Calvo naiz. Iraila hilabete berri bat da askorentzat. Atzean uzten ditugu oporrak, udako arratsalde luzeak, ordutegi malguagoak eta abar, lane-ko, eskolako eta norberaren errutinarako itzultzeko. Al-daketa horrek nolabaiteko estresa eragin dezake. Pilateseko gure zentroan lagundu nahi dizugu errutinarako trantsizioan. Maila guztietara egokitutako saioak eskaintzen dizkizu-

gu, pertsona bakoitzak udazkenari bizitasunez aurre egiteko behar dituen malgutasuna, indarra eta kontzentrazioa berreskuratzeko. Gainera, gure eskoletako giro atsegin eta hurbilak aukera emango dizu zuretzako espazio batez gozatzeko eta, horrela, zure gorputza orekan sentitzeko. Pilates tresna ezin hobea da hori lortzeko, eta hemen gaude lehen urrats hori ematen laguntzeko.



SAKANA OPTIKA • ALTSASU • 948 563 124

"Gerora zailtasunak egon ez daitezen aurretiazko errebisioak egitea oso komenigarria da"

Ainhoa Alvarez eta Xabi Olaziregi gara. Begibistan eta entzumenean adituak gara eta urteetako esperientzia dugu. Gure helburu nagusia bezeroei kalitatezko konponbideak eskaintzea da. Modu honetan pertsona bakoitzaren premia indibiduali erantzuten diogu. Ikusmen-azterketetatik eta entzumen-proba zehatzetatik hasi eta modako betau-

rrekoen armazoiak hauta-ketaraino eta abangoardiako audifonoen egokitzapenaraino. Garai honetan aholku nagusia izango litzateke haur eta nerabeen begibista errebisioak alde aurretik egitea, gerora zailtasunak egon ez daitezen. Eta entzumen zerbitzuan ere udaren ondoren komeniko litzateke audiometria errebisioak egitea.

"Esnatu zure energia: erabateko errutinarako tratamendu naturalak"

Errutinarako itzultzea une ezin hobea da zure ongizatea lehenesteko! Gure zentroan, Belen, Maite eta Patricia, hainbat arlotako profesionalok, behar duzun energia eta oreka berreskuratzeko ikuspegi integrala eskaintzen dizugu. Naturopatia, Txinako medikuntza, kraneosakra osteopatia, dietetika eta nutrizio tratamenduekin, Indibarekin egindako tera-

piez gain, zure gorputzari eta buruari eguneroko erritmora egokitzen laguntzen diogu. Berreskuratu zure bizitasuna, hobetu zure digestioak, arindu tentsioak eta indartu zure osasuna barrutik zein kanpotik. Zatoz gu bisitatzea, eta hasi zure bidea errutina osasuntsuago, orekatuago eta betegarriago baterantz, edozein adinetarako. Zure zain gaude!



SARABE ZENTRUA • ALTSASU • 948 468 116

Irurtzundik Ziordira, Sakana osoan zehar 3.000tik gora Guaixe banatzen ditugu, askok etxean jasotzen duzue.

Serie honetan gure inguruan ditugun negozio txikiak eta ez horren txikiak hobeto ezagutzeko aukera eskaini nahi dugu.

Eskaintzak, datu bitxiak, jarduerak etab. Gure irakurle guztiekin partekatu nahi ditugu 0km-ko produktu, zerbitzu eta erosketak aukera ditzagun.



Ehun urte bete dutenei aitortza egin diete

Lizarragako Kontzejuak agorrilean eta Altsasuko Udalak festetan, biek ehun urte bete dituzten bi emakumezko eta betetzear den gizonezko bat omendu dituzte

A.A.I. LIZARRAGA / ALTSASU

Lizarragako Linosena etxeok Boni Luis Erdoziak 100 urte bete zituen agorrilaren 5ean. Goizetik aurorok etxean kantuan izan zituen. Luisek urtebetetzea familiaz, lagunez eta lizerratarrez inguratuta ospatu zuen. Familiarekin bazkaria egin ondoren, herriko plazan ongi hornitutako merendu goxoa izan zen herritar guztiendako. Bere iloba Edurnek eta Ane, Mireia eta Irune birbilobek aureskua dantzatu zioten. Oihan eta Mairi birbilobek *Txoriak txori* kantatu zioten. Udalaren aitortza jaso zuen.

Urtebetetze festan izan zirenek azaldu dutenez, ospakizunean "giro hunkigarria eta polita sortu zen, elkartasun eta festaren ikur. Herriak eta familiak eskaini dioten omenaldian, belaunaldi askoren errespetua eta maitasuna jaso zituen. 100 urteko bizitzaren ospakizuna, belaunaldien arteko lotura, eta bizitza osoan zehar egindako lanaren eta eskuzabaltasunaren adierazpena izan zen".

Ehun urte bete dituen lizerratarra bost anai-arrebetatik hirugarrena zen. Oso gaztetan Etxarri Aranzatza lanera joan zen. Ama hil zitzaion eta aitak bere burua sei umerekin ikusi zuen. Horregatik, Luisek 13 urterekin Urritzolara joan behar izan zuen, zerbitzari lanak egitera. Ondoren, Iruñerako bidea hartuko zuen. 22 urte zituela Cesareo Elsoarekin ezkondu eta etxekoan zaintzaz arduratu zen. Senarra 96 urterekin hil zen. Luisek familia handia du: sei seme-alaba, hamalau biloba eta hamaika birbiloba.

Lehen bisita

Altsasuko Udalak festetan herriko bi pertsona adinduenak omen-

tzeko ohitura du. Astelehenean bi pertsona horiengana bisitan joan ziren eta udalbatzako kideek bakoitzari lore sorta eder bana oparitu zieten. Hura jasotzen lehena Clara Olmedillo Aldasoro izan zen, agorrilaren 9an ehun urte bete zituena. Bere iloba Erkudene kudeatzen duen Zelai kafetegian jaso zuen sorta, Esther Merino Casero (96 urte) eta Mari Carmen Arakama Arregi (92 urte) lagunak eta Gerardo Olmedillo Aldasoro anaia (96 urte) eta Juanita Arakama Zelaia koinatua (93 urte) ondoan zituela.

Olmedillo bakarrik bizi da eta osasuntsu dago, ikusmena apur bat galduta badu ere. Gaztetan Domingo Castro Luna katalanaz maitemindu zen. Baina ezin zen gurasoengandik urrundu. Ama 93 urterekin hil ondoren, 60 urteak paseak zituenean Domingorekin ezkondu zen. Bartzelonan 22 urtez bizi izan zen, senarra 2010ean hil zen arte. Altsasura, San Joan kalera, bizitzera bueltatu zen, sortetxetik gertu. Haurretan, oraindik eskolara joaten zela, 9 urterekin lanean hasi zen, brodatzen. 40 urtez brodatzailea izan zen. Modista ere izan zen. Hamabina urtez tindategi batean eta Isphording enpresan lan egin zuen. Azken horretan jubilatua zen.

Hurrengo

Altsasuko jubilatua elkartean lagunekin gosaldia ondoren jaso zuen udalaren lore sorta Joaquin

**BONI LUIS ERDOZIA,
CLARA OLMEDILLO
ALDASORO ETA
JOAQUIN REGALES
SIERRA OMENDUAK**



Boni Luis Erdozia erdian, urtebetetze egunean senideez inguratuta. UTZITAKOIA



Clara Olmedillo Aldasoro udalak emandako lore sorta eskutan duela, lagun eta senideez inguratuta.



Joaquin Regales Sierra Jokin eta Mikel semeekin, Nekane Olano errainarekin eta udal ordezkarekin.

Regales Sierrak, azaroaren 11n 100 urte beteko dituenak.

Madrilen sortua, bi hilabete zituela familia Escorialera joan zen bizitzera. Ama gaixotu egin zen eta Gredos mendilerroko Pedro Bernardo herrira bidali zuten, aitona-amonekin bizitzera, bizpahiru urteren ondoren Escorialera bizitzera bueltatzeko. Trenbideko langile familiakoa, 1940tik bizi da Altsasun. Hasieran geltokian bizi ziren. Baina 1957an Altzania kalean eraikitako pisura pasa zen familia. Han segitzen

du bizitzen. Teodora Iza Huizi etxarriarrarekin ezkondu eta bi seme izan zituzten: Jokin eta Mikel.

Regales, egunero esnatu eta gosaldia ondoren, bazkaria prestatzen hasten da. Eguerdian jubilatuen elkartera joaten da, etxera bazkaltzera bueltatzeko. Elkartera arratsaldeetan bueltatzen da, orduan lagunekin kartetan, tutean aritzeko. Joan-etorri horiek lagunduta egin behar izaten ditu orain. Duela bi urtera arte Larruntza

dermioan zuen baratza gobernatzen zuen. Jorratzen egon zen joan zen urtean, eta orain begiratzera besterik ez doa.

Renfen aritu zen lanean. Han lan gutxi egin eta gutxi kobratzen zela azaldu du. Eta, horregatik, aldi berean bi lanetan aritu zen, Renfen eta Suarez anaien fundizioan. 20 urte eman zituen bi enpresatan lan egiten eta, azkenean, erabaki zuen fundizioan gelditzea. Eta, ondoren, eskularruak egiten zituen Ochoa de Eribe enpresan.



Oiarbide izan zen azkarrena Donamarian.

AIZKORA Oiarbide, Resano eta Mitxelenaren aukera

Irailaren 21ean Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako final handia jokatu da Uharte Iruñean, 17:30ean, Toki-Alai frontoian. Bertan abuztuaren 14an Donamariako kanporaketan sailkatu ziren lehen bost aizkolariak lehiatuko dira. Kanporaketa oso estuan, bi kanaerdiko eta 60 ontzakoa moztan lehena Aritz Oiarbide etxarriarra izan zen (9:46). Atzean Iban Resano dorrobarra (9:48), Oier Mitxelena altsasuarra (9:50), Jesus Etxeberria (10:00) eta Patxi Igoa (10:27) sailkatu ziren.

Final estua

Bostok lan potoloa dute aurretik finalean, kanporaketakoarekin alderatuta, lan bikoitza baino gehiago: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat. Lehen bi aizkolariak Nafarroako lehen mailara igoko dira, eta, beraz, finala oso garesti dago. Lehia borrokatua espero da, kanporaketan lehendabiziko lau aizkolariak 15 segundoko tartean aritu zirelako. Ea txapela Sakana etortzen den.

Altsasuko final zirraragarria

PILOTA Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu da B Serieko CaixaBank Masterseko finala ikusgarria izan zen. P. Etxeberria-Morgaetxebarriak eta Dario-Eskirozek dena eman zuten, eta bukaeraraino parekotasuna izan zen nagusi. Azken txanpan, ordea, Dario erabakigarriagoa izan zen eta gorriek 22-19 irabazi zuten. Urdirnek finala oso garesti saldu zuten.



Goxua Txapelketako partaideek kamiseta bana oparitu zieten Txikuriri eta Miguel Martinez de Goñiri. UTZITAKOA

Txikuriri aitortza eginez hasi zen Olaztiko Goxua

PILOTA Harrera ezin hobea izan du Goxua Taldeak Olaztin antolatutako Goxua Txapelketa-Agustin San Miguelen Omenezkoak. Txapelketako lehen jardunaldian urte luzez pilota irakasle izandako Martin Mundiñako 'Txikuri' omendu zuten

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Aurreko ostiralean hasi zen Goxua Taldeak Olaztin antolatutako Goxua Txapelketa-Agustin San Miguelen Omenezkoa. San Miguel elkarteak 2018an antolatutako azken txapelketatik Olaztin ez zen goxua txapelketarik jokatzeko, eta "ostiral haietako goxua partida herrikoia eta frontoiko giro hura" berreskuratu nahi izan dituzte. Eta lortu dute; ostiraleko txapelketako lehen jardunaldian leporaino bete zen Olaztiko pilotalekua.

Txikuriri aitortza

Txapelketa jokatzeko hasi baino lehen, txapelketaren nondik norakoen eta Goxua Taldearen helburuen berri eman zuen Goxua Taldeak.

Halaber, lehen jardunaldi horretan Martin Mundiñako 'Txikuri'-ri aitortza egin zioten. Olaztira ezkonduetako etxarriarrak makina bat urtez pilotan jokatzeko irakatsi zien haur olaztiarrei. "Gaur hemen gauden gehienok berarekin ikasi genuen pilotan" nabarmendu zuen Goxua Taldeko Roberto Zornozak. Goxua Taldeko kamiseta bat oparitu zioten, atzean Txikuri izena zuena. Halaber,

"OSTIRAL HAIETAKO GOXUA PARTIDA HERRIKOIAK ETA GIROA BERRESKURATU DITUGU"

Olaztin antolatzen diren ekitaldietara laguntzera hurbiltzen den Miguel Martinez de Goñiri beste kamiseta bat oparitu zioten, Miguel izena zuena. "Miguel beti laguntzeko prest egoten da. Miguelena izango da txapelketako partidetan markagailua eguneratzeko ardura".

Txikuri eskertuta zegoen aitortzarekin. Are gehiago, alboan bere ikasle izandakoak zituelako. Aspaldiko kontuak etorri zitzaizkion burura. "Olaztiko haur gehienak etortzen ziren pilota jokatzeko ikastera. Urte batez 68 ikasle izan nituen, pentsa". Gaztetxoei pilotan jokatzeko irakasteaz gain, txapelketak antolatzen zuten. "Urtean bi txapelketa prestatzen genituen, eta haur guztiek

jokatzen zuten, guzti-guztiek" oroitzen du. Txikuri urte luzez egon zen Olaztiko pilota eskolan, "gustura". Beranduago, utzi zuen, eta Ricardo Lopez de Sabandok hartu zuen Sutegi pilota eskolaren ardura.

Lehen jardunaldia

Olaztiko Goxua Txapelketari dagokionez, lehen partida izan ezik, gainontzekoak "oso borrokatuak" izan ziren. "Sekulako giroa egon zen, barre algaru ugari eta garai bateko ostiral gauetako frontoiko giro hura". Txapelketa herrikoia denez, are gehiago antzematen da gertokotasun hori. Lehen partidari Agirrek eta Kamuelek 18-2 hartu zituzten mendean Vizuite 1 eta Vizuite 2, eta bigarren partidari Goya eta Zornoza 18-13 gailendu ziren Ekhiren eta Solasen aurrean. Hirugarren partidari Flores-Etxebeste eta Berat-Enerizek lehia estua izan zuten, baina lehenak nagusitu ziren 18-14. Bukatzeko, Izagirre-Belokik 18-14 hartu zituzten mendean San Vicente eta Maiza.

Bigarrena, eta afizionatuak

Goxua Txapelketako bigarren kanporaketa gaur, irailak 19 jokatu da, 21:00etan, Olaztiko pilotalekuan. Zozketa egin eta gero, ondoko partidak daude lehiari: Goya-Zornoza vs Agirre-Etxeberria; eta Beloki-Izagirre vs Flores-Etxebeste.

Horretaz gain, Afizionatuen Pilota Txapelketa abiatu da. Bi partida jokatu dira. Lau eta erdian Otxoak Murgiondo izango du aurkari, eta beste partidari Igoa Salcedoren kontra ariko da.

Bi txapelketetako finalak irailaren 26an jokatu dira, San Miguelan. Egun horretan Agustin San Migueli omenaldia egin go zaio.



Atzelari izateko prest

PILOTA Erronka onartuta, Joseba Ezkurdia Altunaren atzelaria izango da gaur hasiko den Logroñoko San Mateo Torneoan. Arbizuarrak haurtzarora bueltatu da, Arbizuko Aldabide klubean hasi zenean atzelari baitzen. Prestatze lanetan, asteartean Elordiren atzelaria izan zen Berneon. Bestalde, Zabaletak Zabalararekin osatu du bikoa, eta Martijak Peio Etxeberriarekin.



"Mundiala" izango dela uste du Iker Gomezek

TXIRRINDULARITZA Urrezko astea bizi du Finisher taldeko altsasuarrak: Britainiako Tourreko erorikotik osatu da, Altsasuko proban lehen nafarra izan zen, Ruandako Mundialetan ariko da eta profesioaletara egingo du salto Kern Pharma taldearekin

M.B.G. ALTSASU

Irailaren 21etik 28ra Kigalin (Ruanda) Munduko Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira. 23 urtez azpiko selekzioako hautatzaile Pascual Orengek prestatutako seikotean dago Iker Gomez Lopez de Goikoetxea altsasuarra (Finisher). Hector Alvarez, Adrià Pericas, Paul Marti, Unai Ramos eta Samuel Fernandez izango ditu taldekide. Irailaren 26an jokatu den errepideko lasterketan parte hartuko dute (164,4 km, 3.350 m desnibel +), Kigaliko zirkuituari hamaika itzuli. Pericas eta Alvarez irailaren 22an jokatu den erlojupekoan lehiatuko dira baita ere (31,2 km).

Kern Pharma talde profesionalarekin stagiaire gisa ari zela Britainiako Tourreko erorikotik osatu da Gomez. "Ongi sendatu naiz. Altsasuko Txirrindularitza Proban ez nuen sorbaldan minik sentitu. Ruandara joateko gogotsu nago. Egutero ez da izaten Ruandara edo atzerrira joateko aukera, eta helburua Mundialetara joateko esperientziarekin disfrutatzea da. Esperientzia ona izango dela uste dut. Mundialetan egongo den maila "mundiala" izango da (kar-kar). Esperientzia probestea, ikastea eta disfrutatzea da asmoa" nabarmendu du.



Iker Gomez Lopez de Goikoetxeak 2028ra arte sinatu du Kern Pharmarekin. FINISHER

Profesioaletara salto

Kern Pharma taldeak astelehenaz aldu zuen 2026 denboraldi berrirako bere lehen fitxaketa Iker Gomez izango dela. Gomez ibilbide azkarra egiten ari da. Aurten debutatu zuen Kern Pharma talde profesionalarekin, Finisherren, eta lau garaipean lortu ditu: Manuel Sanroma Memorialeko lehen etapa, Lizarako Zunzarren Memoriale, Circuito Montañeseko lehen etapa, eta Nafarroako Erlojupeko Txapelketa. Selekzioarekin lan ona egin du eta Kern Pharma

taldeko stagiaire-a izan da. Urte bateko epean profesional mailara igoko da, Kern Pharma taldearekin 2028ra arte sinatu baitu, hiru denboraldi. "Oso pozik nago profesional mailara salto egiteagatik. Aurten oso pauso ona eman dudala uste dut eta oso pozik nago taldeak eman didan aukerarengatik. Kern Pharmak emandako konfiantza eskertu beharra dut". Ilusioz gainezka dago altsasuarra, ametsak betetzen ari baita. "Datorren urtea zer moduz joaten den ikusiko dugu".

TXIRRINDULARITZA

Urkaregi, Altsasuko sorpresa

Igandean jokatu tako Altsasuko Txirrindularitza Proban (140,86 km), Altamira zazpitan igo zuten txirrindulariek. Eñaut Urkaregi juniorra Finisherrek in aritu zen stagiaire gisa. Talde lan ikaragarria egin eta gero, esprintean gailendu zen (3:15:58). Junior batek afizionatueta irabazten duen lehen aldian izan zen. Iker Gomez lehen nafarra izan zen.



Urkaregi, saria jasotzen. MARTIN EARLY

TXIRRINDULARITZA Ekai Erdozia, Arabako Itzulian ederki

Kadeteen Arabako Itzuliak lau etapa zituen eta igandean despeditu zen. Eneko Ruedas (Caja Rural Salamanca) izan da txapelduna (5:05:56) eta Ekai Erdozia (Sakana Group-Alea) laugarren sailkatu da, 32 segundora, eta mendiko sailkapenean bigarren izan da. Ekai hirugarren izan zen azken bi etapetan. Sakandarrek maila ona eman dute.

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU

Beratxa Sport Team taldeko Ane Berastegi Jaka txirrindulari arbizuarrarendako denboraldi gorabeheratsua izan da aurtengo. Mononucleosiak denboraldi guztia baldintzatu dio, baina abuztuaren 20tik 24ra selekzioak Apeldoorneko (Herbehereak) Junior mailako Munduko Pista Txirrindularitza Txapelketetan aritzeko hautatu zuen, eta "sekulako esperientzia" izan da.

Junior Mundialetan aritzeko deia jasotzea albiste bikaina izango zen.

Berria eman zidatenean oso pozik jarri nintzen, niretako denboraldi hau ez delako oso ona izan. Denboraldiaurrean bi hilabete geldirik egon nintzen, mononucleosia nuelako. Nahiko gaizki pasa nuen. Horregatik Mundialetara joateko albisteak aurrera jarraitzeko sekulako poza eta indarra eman zidan.

Dei hori espero al zenuen?

Pista txirrindularitzan neguan izaten ditugu txapelketak, baina Europako Txapelketak eta Mundialak abuztu aldera jokatzen dira. Denboraldian barna pista selekzioarekin bizpahiru aldiz egon nintzen kontzentratuta, baina ez nuen uste Mundialera eramango nindutenik.

Aurten Nafarroako pista junior txapelduna izan zara eta Espainiako Txapelketan puntuazioan hirugarren. Gaixo egoteko, ez dago gaizki.

Mononucleosiagatik bi hilabete geldirik egon nintzen urte hasieran, otsaila aldera, hain justu pista denboraldi bete-betean. Espainiako Koparako baliagarria zen azken proban, Tafallakoan, lehiatu nintzen. Espainiako Txapelketetan egon ahal izateko puntuak behar nituen, eta lortu nituen. Espainiako Txapelketetan hirugarren postua lortu nuen puntuazio proban. Bestalde, Nafarroako txapeldun izan nintzen. Egoera kontuan hartuta, poztekoa da. Izan ere, mononucleosiak jota utzi ninduen: bi hilabete ia-ia etxetik atera gabe egon nintzen, ezin mugitu, lehertuta. Hori denboraldi guztian nabaritu dut, joan zen urtetik hona nituen sentsazioak galdu nituelako.

Tratamenduren bat jarri zizuten?

Mononucleosiak ez du botikarik. Denborarekin pasatzea, hori da erremedio bakarra. Urte osoa gaizki dagoen jendea dago, beste batzuk hilabeteak... Ni oraindik ez nago nire %100ean. Sasoian jartzea pila bat kostatu zait. Denboraldiaurrean bi hilabete galtzea

asko da, eta hori urte berean errekupeatzea nahiko zaila da; denboraldi osoa eskatzen du. Baina Munduko Pista Txapelketetan sentsazio hobeak nabaritu nituen, hobetu dudala konturatu nintzen. Ea hurrengo denboraldirako %100ean nagoen.

Mundialetara joan baino lehen Tafallan egon zinen selekzioarekin, kontzentratuta.

Abuztuaren 8tik 16ra edo 17ra egon ginen kontzentratuta, eta bertatik Apeldoornera joan ginen. Belodromoa probatu, eta lehiaketa egunak etorri ziren.

Belodromo batetik bestera alde dago. Zer moduzkoa da Apeldoornekoa?

Egurrezkoa da. Ez da oso azkarra, belodromoa itsasoaren azpian dagoelako. Faktore horiek eragiten dute. Nahiko zirkuitu go-gorra da, zaila.

Taldeko jazarpen modalitatean lehiatu zinen Izaro Etxarri, Leire Almena eta Leire Toledo taldekin. Oso ongi hasi zineten. Lehendabiziko seriean zuen erregistroa segundo erdian hobetu zenuen.

Espainiako errekorra apurtu genuen eta errekor berria ezarri (4:39.063). Bosgarrenak izan ginen lehen seriean, lan ona egin genuen.

Nolakoa da jazarpen proba?

Jazarpen proban pistan hamasei buelta egin behar dira ahalik eta denbora gutxian. Taldeko lau txirrindularik parte hartzen dute, eta helmugara hiru txirrindulari elkarrekin sartu behar dira bai ala bai. Bestera atzerago sar daiteke. Horrela, selekzio bakoitzak bere estrategia erabiltzen du. Adibidez, txirrindulari bat aurretik joatea erritmo oso azkarrean, hamasei buelta ho-



"MONONUCLEOSIAK JOTA UTZI NINDUEN. EZ NAGO %100EAN, BAINA SENTSazio HOBEAK DITUT"



Ane Berastegi, eskuan loreak eta lepoan oparitutako zapia, lagunak egindako ongietorrian. UTZITAKOA



Lagunaren aureskua. UTZITAKOA

"Mundialetatik itzuli eta lagunak zain egotea oso polita izan zen"

ANE BERAŠTEGI JAKA TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Txirrindulari arbizuarra Junior mailako Munduko Txirrindularitza Txapelketetan lehiatu zen selekzioarekin, denboraldi gorabeheratsuari buelta emanez



rietatik hamar bera aurretik doala egitea, eta taldea lanzatuta uztea, gero alderatu eta atzean dagoen hirukoteak lana bukatzeko. Hori izan daiteke estrategietako bat.

Zein eginkizun egokitu zitzaizun?

Lehenengo seriean taldea lanzatuta uzten zuena izan nintzen, aurrean nindoana, eta bigarren seriean helmugara beste bi txirrindularirekin batera iristen zenetako txirrindularietako bat. Lehen seriean urduri hasi ginen. Buelta bakoitza segundo bat gutxiagoan ematen genuen. Oso azkar hasi ginen, eta bukaeran nabaritu genuen, baina pozik bukatu genuen, Espainiako errekorra apurtu eta sailkapenean bosgarren izan ginelako. Bigarren seriean berriro ere nahiko azkar hasi ginen. Aurreikusitakoa aldatu zen, printzipioz aurretik zegoen txirrindularia, taldea lanzatuta utzi behar zuena, helmugan batera sartu behar zirenekin sartu zelako. Horregatik denbora pixka bat galdu genuen, atzetik geundenak azkarrago egin genezakeelako, aurretik doana beti lehertuta geratzen baita. Hala ere kontentu bukatu genuen, zazpigarren izan ginen. Gure proba britainiarrek irabazi zuten; munduko errekorra apurtu zuten.

Aurreikusitako emaitzak izan ziren?

Perspektiba batzuekin joan ginen Mundialetara, eta orokorrean atera ziren. Selekzioa eta gu ere bai oso pozik gaude egindako lanarekin. Mundialetan aritzea

sekulako esperientzia izan da. Jende berria ezagutzen duzu, kanpotarrak... Oso polita izan zen.

Mundiala bukatu eta etxerako bueltan omenaldia egin zizuten Arbizun. Ez nuen espero, sorpresa izan zen. Nire lagunak, udalaren laguntzarekin, antolatu zuten. Justu etxera iritsi nintzen unean izan zen, Arbizura iristen ari ginela. Gurasoek zerbait bazekiten, baina ez zidaten ezer esan. **Arbizura iritsi eta jende guztia plazan zure zain.**

Plazan jende pila bat zegoen. Nire lagun eta Beratxa txirrindularitza taldekide Siets Goikoetxeak aureskua dantatu zidan, lagunak loreak eman zizkidaten, udalak Arbizuko armarrria duen zapia edo ttattarra... Hunkitu nintzen, egia esan. Polita izan zen, oso pozik nengo. Herriaren eta lagun berotasun hori sentitzeak sekulako indarra ematen dizu.

Aurtengoa junior mailako zure azken denboraldia da. Txirrindularitza jarraituko duzu?

Orain mailaz pasako naiz, 23 urtez azpiko maila amateurrera. Oraindik ez dakit zein taldetan ariko naizen; horretan nabil, aukera ezberdinak aztertzen. Pista txirrindularitza ez da juniorretan bezala izango; hau da, 23 urtez azpikoan ez dago Espainiako Koparik ez bestelako probarik, soilik Espainiako Txapelketak eta gutxi gehiago. Ni pistan eta errepidean segitzeko gogoekin nago; ea datorren urtean zer moduz nabilen.

Juniorretik afizionatuera dagoen koska edo salto hori ematea ez da erraza.

Taldea bilatzea ez da erraza, eta prestatze aldera ere aldaketa da. Entrenamendu ordu gehiago, lasterketa luzeagoak, erritmoa ere handitzen da... Gehiago entrenatu beharra dago.

Zer moduz joan da aurtengo errepideko denboraldia?

Errepidekoa ere ez da denboraldi normala izan; gorabeheratsua izan da. Ez ditut aurreko urteko sentsazio berak izan. Dagoeneko denboraldia bukatu dut, ez ditugu lasterketa gehiago.

Mononucleosiak sortutako egoera kontuan hartuta, egindakoarekin pozik zaude?

Egoera kontuan hartuta, bai, okerragoa izan litzatekeelako. Ea hurrengo urtean gauzak hobeto ateratzen diren.



Bukaeran auzatea egon zen Etxarri Aranazko plazan, eta talde argazkia atera zuten. UTZITAKOIA

50 orduz jarraian 50 igoera Hartzabalera

MENDI LASTERKETAK Trikutrail taldeak erronka bete du: urriaren 5ean Etxarri Aranatzeko jokatu den 50. Mendira Joan Etorria omentzea, "gustatzen zaiguna egiten, mendian korrika egiten, alegia". 50 txandak martxa onean joan ziren, giro ederrean

M.B.G ETXARRI ARANATZ

Urriaren 5ean 50. edizio beteko ditu Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorriak. Urteurren biritik kontuan hartuta, Trikutrail taldeak horrenbeste urtetan proba antolatu duen Udaberri elkarteak, boluntarioak eta 1975 urtean apustua eta lehen edizioa egin zuten Patxi Uizi Oiarbide, Felix Igoa Mozo eta Angel Mari Agirre omendu nahi izan zituen. Horretarako, "50 urte, 50 ordu, 50 igoera" omenaldi herrikoia antolatu zuten asteburuan. Mendira Joan Etorrian Hartzabalera igotzen denez, 50 aldiz jarrian igo zen Hartzabalera.

Ostiralean 11:00etan abiatu ziren, lehengo txandan, Ander Unzurrunzaga eta David Caballe. Ordutik, beste 49 txanda igo ziren Hartzabalera. Txanda aldatzeko Jeingeneako bordan egin ziren. Azken txanda bereziena izan zen. Igandean 12:00etan abiatu zen, aurpegi ezagunekin. Etxarriarrez gain, 28 edizio egin dituen Jose Antonio Salgado, sarritan garaile izandako Fernando Etxegarai, urtero parte hartzen duten Txurregiko korrikalariak eta beste zeuden.

Trikutrailekoak oso pozik daude. "Ekimena primeran joan da, giro polita egon da. Oso sentazio onarekin bukatu dugu asteburua. Lan gehiegi ez zen, baina ordu asko egon beharra zegoen. Eguraldiak errespetatu du, eta gauez aritu den jendea oso gustura egon da, goialdean behean baino tenperatura hobe omen zegoelako. Oso zapo ona dugu, jende askok parte hartu duelako eta oso giro ona egon zelako" azaldu du Igor Artiedak. Gehienak etxarriarrek ziren, "baina Sakanako beste herrietatik eta kanpotik hurbildu zen jendea baita ere. Uste dugu Mendira Joan Etorriaren 50. Urteurrenari begira herria eta giroa aktibatu ditugula".

Jeingeneakoaren bordara jende dezente hurbildu zen. "Nagusienek lehenengo urteetako kontu zaharrak kontatzen zituzten; gauza asko ikasi ditugu". Trikuttrailekoek esker oneko hitzak dituzte Mendira Joan Etorriko antolatzaileendako. "Gustatzen zaiguna egiten egin diegu omenaldia, mendian korrika, alegia". Denak urriaren 5era begira jarri dira, 50. Mendira Joan Etorria, hain zuzen ere.

Futbol denboraldian murgilduta, bete-betean

FUTBOLA Nafarroako Futbol Federazioko 2025/2026 denboraldia abian da. Aurreko asteburuan Altsasuk preferente maila mustu zuen, baina asteburu honetan hasiko dute liga gainontzeko talde gehienek. Futbolaren makineria martxan da

M.B.G. SAKANA

Talde gehienek asteburuan ekingo diote 2025/2026 denboraldiari. **Emakumezkoen hirugarren maila** asteburuan mustuko du Altsasuk. Igandean Tuterako Lourdes talde hartuko du, 12:00etan, Dantzalekun.

Preferente mailan, Altsasuk Mendiren kontra jokatu zuen kategoria berriko denboraldiko lehen partida. Norvegiagoka oso lehiatuan, Altsasu 1-0 galduta itzuli zen etxera. Larunbatean Altsasuk Amigo taldea hartuko du Dantzalekun, 18:15ean.

Erregionalean, bosgarren multzoan jokatu dute Etxarri Aranatzek eta Lagun Arteak.



Altsasu, 3. maila mustutzeko prest. ALTSASU

Altsasu erregional mailako taldea osatzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Etxarrik Arga Ibaia hartuko du larunbatean, 16:30ean, San Donaton. Lagun Arteak San Jorge B-ren kontra jokatu du igandean, 18:15ean, Iruñean.

Bigarren jubenil mailan Altsasu A, Altsasu B, Etxarri Aranatz eta Lagun Arteak lehiatuko dira. Bosgarren multzoan, Altsasu A-k Kirol Sport B hartuko du igandean, 15:30ean, Dantzalekun. Egun berean, Etxarrik Liceo Monjardin A du aurkari San Donaton, 17:00etan, eta Lagun Arteak San Ignacio A hartuko du, 18:00etan, Itxesaldan. Seigarren multzoan, Altsasu B-k Rotxa

Superkopa, Altsasurendako

Zoritxarrez, bertan behera geratu da Altsasu Kirol Elkartek eta Arbizu Kirol Taldeak larunbatean jokatzekoa zuten federazioaren Superkopako finala, Arbizuk ezin duelako talderik aurkeztu. Trofeoa Altsasun geratuko da, baina gustukoa ez den moduan.

B taldea izango du aurkari larunbatean, 11:15ean, Lezkairun.

Kadeteen preferenteko bigarren multzoan jokatu dute Lagun Arteak eta Altsasuk. Larunbatean, Atarrabiaren kontra ariko da Lagun Arteak, 18:30ean, Atarrabian. Altsasuk, aldiz, Ardoi B izango du aurkari igandean, 12:00etan, El Pinarren. Bestalde, kadeteen bigarren mailako zazpigarren multzoan Altsasuk eta Etxarri Aranatzek euren arteko derbiarekin hasiko dute denboraldia, igandean, 10:00etan, Dantzalekun.



Maite Beregaña, Km Bertikalean.

MENDI LASTERKETAK Km Bertikala eta Urbasa proba, ate joka

Aralar Mendi klubak igandean jokatu den Beriain Km Bertikalerako dena prest du. 10:00etan abiatuko dira korrikalariak, banaka, 5 km eta 1.023 m desnibel + duen proba ikusgarria osatzeko. Nafarroako txapelketa da.

Bestalde, Olaztin Urbasa XVII. Mendi Lasterketa irailaren 27an jokatu dute, 10:00etan (16,46 km, 800 m +). Izena emateko azken egunak dira (Rockthesport).

Sakana Patin, Liga Nazionaleko txapelduna

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Sakana Patin taldeak balentria lortu du: 15 urtez azpiko abiadura irristaketako Liga Nazionaloko hirugarren maila irabaztea, asteburuan Oleirosen (A Coruña) jokaturako hirugarren eta azken jardunaldian.

Nekeza, baina zoragarria

Sakana Patineke asteburu osoa eman du Galizan. "Ostiralean 10:00etan hartu genuen autobusa. Larunbat goizean pista probatu eta 15:00etan hasi ziren probak. Igande eguerdian bukatu zen txapelketa, eta 21:30ak aldera iritsi ginen Altsasura. Nekeza izan da, baina zoragarria, trofeoa ekarri dugulako".

Oleiroseko azken jardunaldian 300 m abiadura (pistari buelta eta erdia), 3.000 m puntuazioa, 1.000 m abiadura (pistari bost itzuli) eta 3.000 m erreleboak (boskoteak, txandaka, erreleboak egiten ditu; buelta bakoitzeko erreleboa egiten da) izan ziren egin beharreko probak. Aurreikusi baino hobeki aritu ziren sakandarrak. "Aurretik genuen aldea mantentzera joan ginen.



Taldeko txikiak erdi aldean sailkatuko zirela pentsatzen genuen, baina kanporaketetan aurrera egiten zuten, eta Rivas-ekoek gainetik sailkatzen ziren. Gainontzekoak, berdin. Probak aurrera egin ahala, Rivas-ekoek alde gehiago ateratzen genien".

Erreleboen proba zen erabakigarriena, bertan puntu gehienak ematen baitira. "Final handira sailkatu ziren sei taldeen artean geunden Hirugarren mailako Liga Nazionala irabazteko nahikoa genuen azkenak ez izatearekin, eta, horregatik, modu nahiko kontserbatzailean lehiatu ginen, gehiegi ez arriskatu eta erorikoak eta bestelakoak ekiditeko. Kontu gehiagorekin atera ginen, helburua ez baitzen erreleboak irabaztea, baina hala ere bigarrenak izan ginen".

Sakana Patineko bost irrista-lariak "oso pozik" daude 15 urtez azpiko hirugarren mailako Liga Nazionale irabazteagatik. "Gurea gainontzekoak baino talde askoz ere txikiagoa da, baliabide gutxiarekin, ez baitugu pistarik. Frontoietan edo industrialdeetan entrentzanatzen dugu, eta tarte-ka Iruñera joaten gara pistan entrentazera". Beraz, sakandarrek lortutakoak meritu handia du. "Beste taldeetako entrentzaileak gu zoriontzera etorri ziren, jakitun direlako gurea talde oso xumea dela. Ciudad del Turia, Rivas Madrid, Toledo... eta halako taldeak ikusten badituzu, aldea oso handia da. Asterixen Galiako herri txiki horren antzekoak gara beraien aldean (kar-kar).

Sakana Patin taldekoak igande gauean iritsi ziren Altsasura. Unai Villalobos entrenatzailea eta lagunak zituzten zain, bengalak piztuta. "Sekulako festa. Ilusio handia egin zien. Altsasuarrek festetan ospatu zuten".

15 urtez azpiko Liga Nazionaleko hirugarren mailako lehen bitaldeak mailaz igo dira; Sakana Patinek, beraz, 2026 denboraldian bigarren mailan jokatuko du. 15 urtez azpiko txapelketa denez, datorren denboraldian taldeko bi irratilarri, Elai eta Eneritz, baxa izango dira adinagatik. "Oporretako geldialdia eta gero

hasiko gara berriro martxan. Atzetik datozen irristalariak igotzea da asmoa, baina ongi aztertu beharra dago. Liga honetan aritzeak irristalariei eta familiei konpromiso gehiago eskatzen die, bidaia luzeagoak egitea, eta familia batzuk ez daude prest. Beraz, zer dugun ikusi beharko dugu". Bestalde, abenduan bilera bat egingo dute antolatzaileek, beste klubetatik utzitako irristalariekin taldeak osatu ahal diren erabakitzeko. "Klub handiek irristalariak dituzte soberan, eta txikiak, aldez, faltan. Konponbide bat litzateke klubon artean irristalariak uzteak. Ea zer erabakitzen duten".

Urrian hasiko dira martxan irristaketa eskolak. Altsasuko eskola eta Sakana Patin lehiaketa taldea kontuan hartuta, 50 neska-mutil dira. Lanean hasteko "gogotsu" daude. Lehiaketa denboraldia, baina, urte bukaeran despedituko da. "Euskal Ligako bi proba izango ditugu urria-azaroan, zenbait indoor trofeo, eta Olaztikiko Erburua kiroldegian antolatzen dugun abiadura indoor proba. Azaroaren 8an izango da". Sakana Patinek ikasturte osoan zehar ditu atea irekita. "Irristalariak anima daitezela, pozarren hartuko ditugu". Halaber, Altsasuko Udalarekin elkarrikizketan jarraitzen dute noizbait pista egin ahal izateko. "Oinarrizkoa da talde gisa hazi ahal izateko".



KIROL + MONITOREEN LAN-POLTSA

Gutxieneko baldintzak:

- Oinarrizko kirol titulazioa
- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz (C1 egiaztatu beharko da).

Harremanetan jartzeko modua:

Interesa dutenek curriculuma helbide honetara bidali beharko dute:

 kirolak@sakana-mank.eus



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

Etxarri Aranazko Abesbatzaren eta Etorkizuna Dantza Taldearen emanaldia izanen da larunbatean, Etxarrin.

OSTIRALA 19

ETXARRI ARANATZ Topaketa.

Euskaltegiko ikasleen eta ikasle ohien argazkia.

19:00etan, plazan.

ZIORDIA Ipuin kontalaria.

Printze giltzapetua ipuin kontaketa, Prospero teatrorren eskutik.

18:00etan, liburutegian.

LARUNBATA 20

ETXARRI ARANATZ Munduko Arrozak.

Munduko Arrozak: SHH, Maroko, Kolonbia, Portugal, Mali eta beste herrialde batzuetako lagunak, Palestina presente. Platera: euro bat. Plazan.

10:00 Hasiera.
13:30 Dastaketa.

LIZARRAGA Lasterketa.

XIX. Ergoienako Bira: Lizarraga, Dorrao eta Unanu arteko 8,5 kilometroko lasterketa.

10:00etan, plazan.

OLATZAGUTIA Kontzertua.

CastaZabal musika proiektuaren ikuskizuna, Kultur 2025 programaren barruan: flamenkoa, jota, euskalgintza, rap eta abar uztartzen ditu aniztasuna irudikatzeko.

20:00etan, San Migel plazan.

IGANDEA 21

OLAZTI Mendi irteera.

Sakanako Mendizaleak taldearen mendi irteera: Areso - Arribe.

07:00etan, autobus geltokitik.

IRURTZUN Mendi irteera.

Iratxo elkartearen mendi irteera: Aralar ; Beloki - Tutture.

08:00etan, Matxainen.

IRURTZUN Bizikleta Eguna.

XXXI. Sakanako Bizikleta Eguna, Sakanako Mankomunitateak antolatuta. Irurtzundik Altsasura, 39 kilometro.

09:00etan, plazan.

UHARTE ARAKIL Lasterketa.

XVI. KM Bertikala Uharte Arakil - Beriain. Euskal Herriko kopa eta Nafarroako Txapelketa indibiduala eta taldekakoa.

10:00etan, plazatik.

ALTSASU Martxa.

Josefina Arregi Klinikako Alzheimerraren IV. Martxa herrikoa. Ondoren, haurrendako puzgarriak, errealitate birtualeko betaurrekoak, Etorkizuna dantza taldearen eta Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako ikasleen emanaldia.

10:00 Martxa, Josefina Arregitik.

12:30 Jarduerak, Iortia zabalgunean.

IRAÑETA Erakusketa eta omenaldia.

Maria Ana Sanz Huarteren omenezko erakusketa.

11:00etan, udaletxean.

OLAZTI Ikuskizuna.

Kontu Kantari 2 txotxongilo antzerki kontzertua: Nanu, Granu eta Kanuto txango berri bat egiteko prestatzen ari dira; arratsalde honetan mendi tontor gainera igo behar dute, baina aldapeko sagarraren adarraren puntan aurkituko dute loretxo bat. Sarrerak: aurretik, 3 euro; egunean bertan, 3,5 euro.

17:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Antzerkia.

Momo al sol/Etxauri bailarako antzerki tailerraren antzezlanaren emanaldia, Antzerki tailerren III. Herrien artean zikloaren barruan. Zuzendaria: Angel Sagues. Sarrerak: 5 euro.

19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Emanaldia.

Etorkizuna Dantza Taldearen eta Etxarri Aranazko Abesbatzaren dantza eta musika emanaldia.

19:00etan, plazan.

ASTELEHENA 22

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIANJone, batzuetan
Osteguna 25 19:00

ASTEARTEA 23

URDIAIN Hausnarketa.

Urdiaingo Herri eskolako zerbitzuak eta ekipamenduak hobetzeko komunitate hausnarketa: Eskolaren diagnostikoa eta beharrak tailerra.

18:00etan, auzoan.

OSTIRALA 26

IRURTZUN Tailerra.

Tramankulu mintegia: Barazkiartea.

17:00etan, Gernika plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Hariztiyen kontzertua: Gartxot eta Olaia Inziarte.

20:30ean, Andra Mari ermitaren zelaian.



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€
prezio hauek BEZa barne dute.
► Bazkideek % 10eko deskontua dute.
► Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko
12:00ak baino lehen.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 19

Min. **18°** Max. **32°**

Larunbata, 20

Min. **14°** Max. **30°**

Igandea, 21

Min. **10°** Max. **17°**

Astelehena, 22

Min. **6°** Max. **16°**

Oroigarriak egiten ditugu

948 564 275

IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI LANPOSTUA
Kamioi eta autobus tailerra Sakana inguruko langile bila. Mekanika, txapa eta margo ezagutzak baloratuko dira. Bidali curriculumak tallercomion10@gmail.com / 948 507 019

IKASTAROA
Irurtzongo udalak hel-duendako aisialdi eta kirol eskaintzetan izena emateko epea zabaldu du: Udalak antolatutako jardueretan izena emateko epea irailaren 25ean amaitzen da. Informazio gehiago eta formularioa irurtzun.eus web orrian

Etxarri Aranazko Udalak antolatutako ikastaroetan izen ematea zabalik: Udalak antolatutako jardueretan izena emateko epea irailaren 25ean amaitzen da eta lastailaren 13an hasiko direla jakinarazi du. Informazio gehiago etxarriaranatz.eus web orrian

OHARRA
Nekazaritza ibilgailuen IAT pasatzeko unitate mugikorra irailaren 22an Altsasun, 23an Olaztin eta 24an Ziordian. Herri guztietan, goizeko 9:30tik 14:15era.

Irurtzongo Udalak hutsik dauden baratzak eman nahi ditu: Sortu daitezkeen bajak kudeatzeko zerrenda bat osatu nahi du ere. Herri baratza bat kudeatu nahi duten irurtzundarrek udalean aurkeztu behar dute eskabidea irailaren 19ko 23:59 baino lehen. Baldintzak eta informazio gehiago Irurtzongo udaletxean.

Arbizuko Txistor Egunean lanean ibiltzeko boluntario bila: Bakarren bat laguntzera an-

matzen bada udaletxean eman dezake izena.

Euskara ikasleendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskalduntzen edo alfabetatzen ari diren sakandarrei zuzenduta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Sakana Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak bideratuta. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburrak.eus

Zure iragarki laburra gure

Merkatu txikian

948 56 42 75

iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
✉ @Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



Imanol Rayo arbizuarra 'Los últimos artesanos' liburuarekin aurkezpenean. EREIN

Zinemaren artisauak

Imanol Rayo zinemagile arbizuarrak 'Los últimos artesanos' liburua aurkeztu du. Bertan, Pedro Olea, Imanol Uribe, Enrique Urbizu eta Moriarte Kolektiboaren zinemari buruz hitz egiten da, zinemagileen artean izandako solasaldien bidez

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Imanol Rayo zinemagile arbizuarrak Pedro Olea, Imanol Uribe, Enrique Urbizu eta Colectivo Moriarti zinema zuzendariekin solasaldiak izan zituen, eta horiek *Los últimos artesanos* liburuan jaso ditu. Erein argitaletxeak argitaratu du liburua, eta XX. mendean zehar, lau belaunaldi desberdinetan, euskal zinemaren ogibidearen nondik norakoak kontatzen du. Miguel Zozaya Fernandezek egin du hitzaurrea, eta bertan zinema artisau kontzeptuaren inguruan hausnarketa egin du ere Zozayak.

2011n Rayo *Bi anai* filmarekin aurkeztu zen pantaila handian. 2020. urtean *Hil kanpaiak* filma aurkeztu zuen, eta 2021ean *Iñigo*, San Inazio Loiolakoaren V. mendeurrenaren harira. Urte bat beranduago, Imanol Ubeda, Jose Igancio Agorreta eta Pello Liza-

rralderekin Sastraka/Maleza liburua kaleratu zuten. Orain, bere lehenengo liburua aurkeztu du arbizuarrak: *Los últimos artesanos*, eta bertan Pedro Olea, Imanol Uribe, Enrique Urbizu eta Moriarte kolektiboko Ion Garayo, Aitor Arregi eta Jose Mari Goenagarekin izandako solasaldiak jaso ditu. Lau zuzendariek (Moriarti kolektiboa zuzendari bezala hartuz), lau belaunaldi desberdin ordezkatzeko dituzte, eta beraz, liburuan 1960ko hamarkadatik gaur egunera arteko euskal zinematografiaren islada ematen da.

"OLEA HASIERA PUNTU HARTUTA, EZINBESTEKOA ZEN HORRI BURUZ HITZ EGITEA"

"Hasieratik hasiko naiz. Liburu honen oinarria Mario Camus-en heriotza da. Hil zenean berarekin kontaktatzeko denbora neraman". Imanol Rayok Donostian egindako aurkezpenean aipatu zuenez, Hollywoodeko zinema klasikoan egiten zen artisautzaren inguruko testigantza jasotzeko Camusekin hitz egin nahi zuen, baina "eskutik joan" zitzaion. "Patuaren gauzak, data horietan kointziditu zuen telebistan eman zutela Pedro Olearen trilogia ez ofiziala, Jose Fraderekin"; hau da, *Tormento*; *Pim, pam, pum... fuego*, eta *Un hombre llamado Flor de Otoño* filmak. Artisau zinemaren "adibide oso ona" direla esan zuen arbizuarrak. "Olea hasiera puntu bezala hartuta ulertu nuen ezinbestekoa zela errealizazio prozesu hura, gaur egun araua ez den zinema bat".

Liburuaren protagonistak lau belaunaldi desberdinetakoak dira, eta haien artean "zubia sortzen" dutela azaldu du Rayok: "Iraganetik gaur egunera. Gaiaren aldetik oso desberdinak, baina elementu hori elkarbanatzen dute". Zinemagile artisauak direla.

Zinemagileen artean

"Formatua elkarrizketa sakonak dira, solasaldi bat. Ni ez naiz kazetaria, orduan ogibidetik heldu diot: zinema ikasten zedenean, gero aurkitu dutena, zer ez zuten espero...". Gauza horiek guztiak kazetaritza elkarrizketa batean ez direla ematen esan du Rayok, "kakotxen artean lagunen arteko solasaldi bat izan da". Elkarrizketatuak eskertu ditu, "izan duten jarreragatik eta pazientziagatik". Izan ere, "batzuetan" egiten zituzten topaketetan "erritmoa eta gardentasuna" mantentzea ez zela erraza aitortu du zinemagileak: "Maratonia-noak izan dira". Ereinek hasieratik proiektuan izan duen parte hartzea eskertu zuen arbizuarrak ere.

XX. mendean zinema herri arte bat zela azaldu zuen Rayok aurkezpenean, "Amerikako zinema oinarri hartuta". Carlos Zuzunegiren liburua aipatu zuen: La mirada cercana. "Zinemari buruz zerbait esan badaiteke obra kolektibo bat dela da". Beste alde batetik, herri kultura asko aldatu dela gaineratu zuen zinemagileak: "Hori ikus daiteke humanidadeen erorketa orokorrean: hezkuntza, kultura eta abar. Liburuan ere ikusten da hori". Esaterako, Enrique Urbizurekin izandako solasaldietan ikus daiteke: "Irakaslea da ECAMen eta esaten du ikusleek eta etorkizuneko zinemagileek ikus-entzunezkoen munduarekiko duten ezjakintasuna nabaria dela. Hori larria da, eta kultura orokorrera zabal daiteke". Konparatzearen Prado Museora joan, erromanikoaren arte lan bat ikusi, eta itsusiak eta lodiak esatearen antzekoa dela dio.

"AGERTZEN DIRENAK EZ DIRA HOBEAK EDO TXARRAGOAK; EGITEKO MODU JAKIN BAT DUTE"

Horrelako anekdotekin liburuan umorea ere badagoela esan zuen Rayok. "Horrelako gauzak planteatzen dira". Gaur egungo gaiak plazaratzen dituzte, "ez bakarrik zinemaren inguruan". Esaterako, hezkuntza eta jakintzaren transmisioa gai bat da, "eta liburua egitearen beste arrazoietako bat, hain zuzen". Edward Dmytryken Cine, concepto y práctica lan didaktikoa oinarri hartuta, zer da zinema edota hortik sortzen den zer den artea hausnarketa lantzen dira ere.

"Azpimarratu nahi dut liburuan agertzen diren zinemagileak ez direla hobeak edo txarragoak; egiteko modu jakin bat dute, araua ez den modu bat, *rara avis* bat dira". *Kimera* bat direla esan zuen Rayok.

Autoreak

Zinema artisaua edo autore zinemaren arteko desberdintasun "gaindiezinak" direla esan du Mikel Zozayak liburuaren hitzaurrean. "Autore zinemagilearen anbizio guztia da artisaua izatea", aipatu zuen Zozayak aurkezpenean. Hasteko, Rayori eta Ereini eskerrak eman zizkien hitzaurrea egiteko aukera emateagatik: "Proiektu interesagarria iruditut zitzaidan, baita beharrezkoa ere". Rayok jaso dituen testigantzak "belaunaldi arteko testigantzak direla, eta anekdotak ez ezik elkarrizketa sakonak" direla esan zuen Zozayak; "oso erraz irakurtzen da, eta zinemagileen lan egiteko moduak azaltzen dira". Zinemagile batek zinemagile bati egindako elkarrizketa ez dela "oso ohikoa" azaldu zuen, "niretako horrek balorea ematen dio liburuari".

Zozayaren hitzaurrea dator artisau hitzak artista osoa bezala ulertzetik, "kritikarien kontraposizioarekin; figura hori goraiatzeko hasi ziren eta artisau kontzeptua erabiltzen hasi ziren. Orduan, autoreek Hollywoodeko sistemaren barruan lan egiten zuten langileak bezala hartzen zituzten. Duela zenbait hamarkadako ideiak dira, baina gaur egunera arte iritsi dira, beste esanahi batzuekin".

Rayok planteatzen duen euskal zinemaren autorea "errealizadore bersatila" da, edozein enkargu hartzeko prest dagoena eta gidoiari buelta emateko gai dena; Zozayarendako horiek dira "artisauak".

Zabalik dago 'Kantari' ikuskizunean izena ematea

Nafarroan estreinekoz, azaroaren 21ean izanen da, Altsasuko lortian. Irailaren 28ra arte eman daiteke izena

ALTSASU
Badator *Kantari* 2025 Nafarroara. Azaroaren 21ean, asteartea, izanen da umeendako musika ikuskizuna, eta dagoeneko pres-taketa lanekin abiatu dira; lehe-nengo urratsa parte hartzaileen izena ematea martxan jartzea da. Irailaren 28ra arte eman daiteke izena, Corazonistas, Iñigo Aritza eta Zelandi ikaste-txetan.
Kantari gaztetxoen artean euskarazko kantak sustatzeko ikuskizuna da. 6 eta 12 urte bi-tarteko gaztetxoek parte har

dezakete, eta helburua euskal kantak abesten eta dantzatzen ondo pasatzea da; ez du inolako lehiaketa kutsurik. Neska-mu-tikoek, taldeka, euskarazko kantu bat ikasi behar dute, zoz-keta bidez antolatzailek eman-dakoa; eredu moduan erakutsi-tako koreografia entseatu edo berri bat prestatu beharko dute, eta eszenatoki gainean abestu eta dantzatu beharko dute.
Euskal Herri osoan arrakasta handia duen ikuskizuna da, eta lehenengo aldiz ospatuko da, azaroan, Nafarroan.



BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Free Palestine



NO PIERDAS UNA OPORTUNIDAD DE TRABAJO
EZ GALDU AUKERA

Euskara maila?

EUSKERA AHORA

¡Matricúlate! Eman izena!

**EUSKARA IKASTEKO/HOBETZEKO TALDEAK SAKANAN (AEK):
GRUPOS PARA APRENDER EUSKERA EN SAKANA:**

ALTSASU A0 9:00-11:40 A0 17:00-19:00 A1 9:20-12:00 A1 19:00-21:00 A2 9:20-12:00 A2.2 17:30-19:30 A2+ 9:00-11:40 A2+ 19:00-21:00 B1+ 9:00-11:40 B1+ 17:30-20:10 B2 9:00-11:40 C1 9:00-11:00 C1 17:00-19:00 C2 9:30-12:30 + Etxeko lanak C2 17:00-18:30 + Etxeko lanak	ETXARRI B2 15:00-16:30 IRURTZUN A0-A1 9:30-12:30 A0-A1 17:00-20:00 A1-A2 9:30-12:30 B1.2 15:00-17:00 B2 9:30-12:30 SAKANA AUTOIKASKUNTZA ONLINE MINTZAKIDE DOHAINIK
--	---

Nahi duzun maila edo ordutegia zerrendan ez badago, galdetu euskaltegian: 948 468 258
Si el nivel o el horario deseado no está en la lista, pregunta en el euskaltegi: 948 468 258
Euskaltegi gehiago/más euskaltegis: www.elaide.eus

Diru-laguntza handiak! ¡Aprovecha las subvenciones!
Hasiera/Iniciación: %100 • Beste mailak/Otros niveles: %80-%100
Sakanako Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua eta Udalak

Informazio gehiago Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan: 948 464 840

Mank
s a k a n a

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua EUSKARA euskarabidea aek ika EUSKARA EOI EUSKARA ZERBITZUA

NAVARRA ‡ NAFARROA
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dagun modua



Atzera ere euskaltegiko atea zeharkatuko du Santiago Ruiz Londoño.

"Asko gustatzen zait, eta asko ikasiko dut"

Elkarriketa euskaraz izan bada ere, frustrazioa sentitzen duela aitortu du Santiago Ruiz Londoño euskara ikasleak. Gauza asko esan nahi baina ezin adierazi. Hori du frustrazioa. Hala ere, hasieratik gaur egunera irabazi du, gauza asko esan ditu

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

1 Euskaltegiko atea lehen aldiz zabaldu zenuenean, zer espero zenuen?

Aspaldi-aspaldi izan zen hori. Hiru edo lau urte? Ez dakit orain-txe bertan noiz izan zen. Baina hiru bat urte daramatzat euskara ikasten, Lehen egunean sentimendu asko izan nituen. Denak

pil-pilean nituen. Eta beldur pixka bat: "agian euskaltegian sartu eta ez dut ezer ikasiko!"

2 Zerk eraman zituen euskaltegira?
Euskara, kultura eta euskaraz hitz egitea gustatzen zait. Nire asmoa da euskara ikastea hitz egiteko. Oraintxe bertan lortu dut. Printzipioz ez dut titulurik eskuratzeko asmorik.

Hitz egiteko ikastearekin nahiko dut. Gehiago ikasi nahi dut. Hitz egitea kostatzen zait, baina poliki-poliki noa, saiatzen naiz hitz egiten.

3 Zer dago euskaltegiaren atea-ren beste aldean?

Jende oso politarekin egin nuen topo. Haiek ezagutzea ohorea izan zen. Bai nire klasekoak,

baita besteetakoak ere. Normalean jendea adinekoa izaten da. Nik ez dut problemarik horrekin. Lagunkoia naiz. Azkenean haiekin oso ongi pasa nuen, izugarri gustura sentitzen nintzen.

4 Nola hartu zintuzten?

Oso ongi hartu ninduten euskaltegian. Irakasleak ere bai. Kariño handia diogu elkarri. Polita da hori. Laguntzeko prest dago. Okertzen banaiz zuzentzen dit. Eta behin eta berrirori saiatzen naiz. Aurten nabaritu dut aurrera egin dudala. Uzteko puntuan nengoen, baina ez dut nahi. Asko gustatzen zait, eta asko ikasiko dut.

5 Hasierako motibazio bera duzu, edo aldatu da?

Hasierako motibazio bera dut: kultura ikastea. Euskaraz hitz egitea kostatzen bazait ere, hizkuntza nirea bezala sentitzen dut. Bihotzera iristen zait. Ikasten segitu nahi dut, eta etorkizunean oso arin hitz egitea nahiko nuke. Etorriko da, poliki-poliki egingo dut aurrera. Ez daukat inolako presarik.

6 Zer eman dizu euskara ikasteak?

Ate asko zabaldu dizkit jendearekin. Harreman berriak ere izan ditut. Bikain. Euskaraz hitz egiten baduzu harrera oso polita da. Normalean, euskaldunek haiei euskaraz hitz egitea nahia-goto dute. Eta haiekin pixka bat saiatuz gero, animoak ematen dizkirate, edo ongi hitz egiten dudala esaten didate. Halakoak entzutea motibagarria da. Bete egiten nau. Denok elkar ulertzen dugu. Uler dezaket nola senti zaitezkeen. Nolako komunikazioa nahi duzun.

7 Euskaltegian ikasi. Kalean praktikatu?

Hori pixka bat zaila da. Altsasun problema txiki bat dugu: beti gaztelaniaz hitz egiten dugu elkarrekin. Nire kuadrilakoekin euskaraz hitz egiten saiatzen naiz. Kostatzen zait, baina horretan saiatzen naiz. Arazo hori dugu, baina nire kuadrila bere erosotasunetik atera beharko dut. Eta horrela ikasiko dut ere.

8 Beharbada Mintzakiden izena eman beharko duzue?

Mintzakide, ez dakit. Beno posible litzateke.

9 Euskara praktikatzeko beste aukera bat Euskaraldia da. Parte hartu duzu sekula?

Aurten belarriprest rola hartu nuen. Sentitzen dut oraindik pixka bat gehiago ikasi beharra dudala.

10 Zer moduzko esperientzia?

Txapa, normalean, poltsan jarrita neraman beti. Euskaraldikoa esperientzia ona izan zen. Gauza bera. Euskaraz hitz egite hutsagatik jendeak atea ireki zizkidan: "etorri, zu etxekoa zara!" Euskal Herria nire etxea baltz bezala sentitzen dut. Sekula baino gehiago.

11 Euskaltegiko atea zabaldu zenuen zuk. Nor gonbidatuko zenuke gauza bera egitera?

Euskara ezer ez dakien jendea euskaltegira joateko gonbit egingo nioke. Ez dezatela beldurrik izan. Zergatik? Beti beldur momentuak izaten ditugu. Baina hasiz gero, ez dira damutuko. Kostatzen da, beti. Baina irakasleak eta ikasleak beti lagun-duko dute.

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabeteen euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena _____

Abizenak _____

NA/IFZ _____

Helbidea _____

Herria _____

Telefono zenbakia _____

Emaila _____

Bankuko kontu korrante zenbakia: _____

ES _____

guaixe
fundazioa
948 564 275
618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus

